

Ana Ürrüti: *Jondane Phetiriren Epitriac* (1873)¹

Anna Urruty's Jondane Phetiriren Epitriac (1873)

Manuel Padilla-Moyano

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)

ABSTRACT: This study presents a critical edition of a Basque-language translation of the Petrine Epistles by Anna Urruty, a Basque evangelist and writer from the Country of Soule. Following a discussion of biographical and bibliographical aspects of, as well as certain reflections on the text, it examines the origins of *Jondane Phetiriren Epitriac*, highlighting the diversity of sources which informed the translation. The critical edition is based on the transcription of copies from the 1873 and 1887 printings. Errors identified in these editions have been corrected to provide the reader with a version that seeks to reconstruct the original text. Ultimately, this work aims at contributing to the wider recognition of Anna Urruty's work.

KEYWORDS: Anna Urruty; Petrine Epistles; Souletin; Zuberoan; Basque texts; Bible translation; Protestantism.

LABURPENA: *Lan honetan Ana Ürrüti ebanjelista eta idazle zuberotarraren bigarren testuaren edizio kritikoa eskaintzen da: Pedroren Epistolen itzulpenarena. Alderdi biografiko eta bibliografikoen, bai eta zenbait gogoetaren ondoren, Jondane Phetiriren Epitriac testuaren sorrera azalduko da, itzulpenaren iturrien aniztasuna agerian utziz. Edizioa 1873ko eta 1887ko*

¹ Lan hau ondoko ikerkuntza proiektu eta taldeen babespean egina da: *Monumenta Linguae Vasconum 6: avances en la cronología de la historia y la prehistoria de la lengua vasca* (Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, PID2020-1188445GB-I00), *Hizkuntzalaritza Diakronikoa, Tipologia eta Euskararen Historia* (Eusko Jaurlaritza, IT1534-22) eta *Corpus of Basque Correspondence from a Sociohistorical Perspective* (Euskal Herriko Unibertsitatea, EHU-N25/76).

* Manuel Padilla Moyano. Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila - Letren Fakultatea (UPV/EHU). Unibertsitateen ibilbidea, z/g - 01006 Vitoria-Gasteiz - manuel.padilla@ehu.eus -  <https://orcid.org/0000-0002-2051-2885>



argitaraldien ale banaren transkripzioan oinarritua da. Bi argitaraldi horietan atzeman diren hutsak zuzendurik, irakurleari testu originala berreraiki nahi duen bertsioa eskaintzen zaio. Azken buruan, lanaren xedea Ana Ürrütiren obraren ezagumendua hedatzea da.

HITZ GAKOAK: Ana Ürrüti; Pedroren Epistolak; zuberera; euskal testuak; Bibliaren itzulpena; protestantismoa.

1. Ana Ürrüti, Zuberoako ebanjelista (1826-1900)

Il n'est pas possible d'évangéliser sans l'évangile (20. gutuna. Ozaze, 1873-12-8)

Ozaze herriko langile familia batean sorturik,² egun *nerabezaro* deituko genukeen adinean Ana Ürrütik Zuberoa kitatu zuen. Gazte denborako urte haiezaz ez dugu inolako daturik, baina gisa guztiz neskato joan zen. 1850ean Bordeleko artzainaren etxean sartu zen; garai hartan fede protestantea hartu zuen. Zuberoatik urrun, bereak betiere gogoan atxiki zituen. Hortaz, 1869an, Parisen predikatzen zuelarik, Ana Ürrütik gogo onez hartu zuen Biblia Sozietatearen galtoa Euskal Herrira misionest etortzeko. Parisen laketua zen, zirkulu protestanteetan ongi sartua. Gainera, haren praubezia ez zen behaztopa izan, adibidez, Errusiar Inperioaren familia aberatsenetarik bateko semea, Pavel Pavlovitx Demidov printzea, Ürrütiren adiskide handi bihur zedin.

Protestantismoa hartu zuenetik, zuberotarren beren *mintzajian* ebanjelizatzeko diseinak gidatu zuen Ana Ürrütiren bizitza. Horretarako, Jinkoaren *Elhia* herrikideen esku errendatu behar zuen, apez katolikoen kontroletik kanpo. Ürrütik gogor lan egin zuen bere itzulpenen argitalpenaren ordaintzeko. Baionako artzainari igorri gutunetan ez du afera aipatzen, baina Cantonek honela dio: «she [...] worked hard and late to provide money for their publication, and produced them at her own expense in 1873» (1910: 258); beste zenbait iturri protestantek hala segurtatzen dute.³

² Ana Ürrüti (1826-1900) anderearen bizitze miresgarriaz dakigun gehiena duela gutxi plazaratu da (Padilla-Moyano 2023); biografiaren zirriborroarekin batean, lan horretan Ürrütik Baionako artzainari igorri gutunen edizioa eskaintzen da. Geroztik Ürrütiren *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* itzulpenaren edizio kritikoa argitaratu da (Padilla-Moyano 2025). Presenteko lana aitzineko bien osatzera dator; beraz, Ana Ürrütiren gaineko informazio biografikoarentzat, irakurleak aipatu erreferentziara jo dezake.

³ Lortschek ere Ana Ürrütik 1873ko argitalpenen gastuak bere gain hartu zituela bermatzen du:

Quand elle eut achevé, elle se posa la question : Ces traductions, comment les imprimer ? Elle n'avait pas de ressources et ne savait pas où s'en procurer. Elle décida donc de gagner par son propre travail, par un

1873an Ana Ürrüti aitaren etxean bizi da, Ozazen. Ama aspaldi zendua du (Marie Üthürbürü, 1794-1851), eta aita adin handitan barnatua (Antoine Ürrüti, *ca.* 1787-1878). Lehen begi kolpean iruditu zaionaren kontra, Ürrüti ohartzen da *Ebanjelio Sainiaren* lehen aleak behar bezala inprimatuak direla, eta abenduaren 12ko gutunean *Jondane Phetiriren Epitriac* liburuxkaren joskerarekin jarraitzeko onespina ematen du. Londreserat partitzeko da, baina geroratu behar du: «J'avais l'intention de partir la semaine prochaine, mais mon père est bien souffrant et je ne pourrais pas le quitter encore».⁴

Bere bi itzulpenen argitalpenarekin, 1873ko abenduan Ana Ürrütik urte luzetako proiektua koroatzen du. Hilabeteak eta are urteak eman ditu Ozazeren eta Baionaren artean joan-jin, librantzak hartuz eta igorritz, hainbaten mesfidantzari, eta batez ere zenbait apezten etsaigoari buru emanez. Azkenean, 1874ko urtarrian Londreserat erbesteratzen da.

2. *Jondane Phetiriren Epitriac* kokatuz

2.1. Itzulpen proiektuaz

Bere itzulpen proiektua Joseph Nogaret artzainari esplizitatzean, Ana Ürrütik honakoa dio: «J'ai décidé que je prendrai tous les passages qui concernent Pierre, suivis de ses Épîtres pour les traduire en basque» (5. gutuna. Senpere, 1870-7-10). Ondoko urteko gutun batean jakiten dugu Ürrüti beharrez lotu zaiola itultzeari:

Monsieur Busson, qui m'avait promis de traduire ce que Monsieur Sallaberry avait refusé, m'a rendue aussi. Il a peur de se compromettre, il m'a dit que je pouvais le faire moi-même, et que si je faisais quelques fautes, qu'il me les corrigerait, en sorte que j'ai commencé à le faire, moi-même une part et Monsieur Monsegur, capitaine retraité, traduit l'autre partie. Après cela je copierai l'évangile Saint Jean. (12. gutuna. Ozaze, 1871-7-18)

travail de nuit, la somme nécessaire. Elle finit par la réunir en 1873, et elle fit imprimer sa traduction à Bayonne. (Lortsch 1903: 174)

Aline Rossier idazle suitzarrak fikziozko solasaldi batean dioskunez (Hoffmann 1922: 85-86), Ürrütik izerdiz bildu sosak ez ziren aski, eta inprimatzaileak, urrikalmenduz bere lukuruari errenontzaturik, kopuru apalago bat akordatu zion.

⁴ Ana Ürrütiren genogramak (Padilla-Moyano 2023: 250) «ca. 1791n» datatzen du Antoine Ürrütiren sortzea. Aldiz, haren heriotze-aktan *âgé de quatre-vingt et onze ans* datza; horren arabera, Antoine Ürrütik 1787 inguruan behar zuen sortu. Bestalde, Joseph Nogaret artzainarekiko gutunerian aita han-hemen aipatua da: «Mon père est très bien, grâce à Dieu. Je pense qu'avec le beau temps ses forces lui reviendront» (13. gutuna. Ozaze, 1872-2-23). Aitzinago, Londresetik ere, Ürrütik eginahalak egingen ditu aitari sos batzuen helarazteko: «Mon beau-frère fera passer ces cent-vingt francs à mon père, à qui je dois envoyer un peu d'argent tous les ans» (28. gutuna, 1874-3-13). Edo: «Il vous reste vingt francs. Auriez-vous, cher Monsieur, la bonté de les donner à mon beau-frère quand il ira chez vous ? Je lui dirai qu'il aille les prendre lorsqu'il ira à Bayonne. Mon père doit aller passer quelques jours à Saint-Pée et ces vingt francs lui serviront pour son voyage» (27. gutuna, 1874-2-23).

Ana Ürrütiren itzulpenek harrera ona kausitu zuten, hala herrikideen artean nola Bonaparte printzeagan; gaiaz ikus Padilla-Moyano (2025: 93-94). Londreserak arribatu berririk, Ürrütik bere liburuen berri jakiten du: «Hier j'ai été à la Société biblique britannique et étrangère pour répondre à une lettre que j'avais reçue du secrétaire, et il m'a montré un évangile Saint Jean et l'épître Saint Pierre qu'un de ses amis à Londres les lui avait donnés» (26. gutuna. Londres, 1874-2-16).

2.2. Ekoizpen argitaratuaz

Ana Ürrütik bi liburu plazaratu zituen, argitaraldi binarekin:

- *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* (Vinson 1891: § 438). Lehen edizioa 1873koa da, Baionako Cazals inprimatzailearen baitakoa. Bere gutunetan, Ürrütik lan honek sorrarazi dizkion buruhaustekak kontatzen ditu. Bigarren argitaraldia 1888koa da, Orthezeko Goude-Dumesil etxekoa. Berriki *Ebanjelio Saintiaren* edizio kritikoa argitaratu da (Padilla-Moyano 2025).
- *Jondane Phetiriren Epitriac* (Vinson 1891: § 439). Lehen argitaraldia 1873koa da (Cazals, Baiona), eta bigarrena 1887koa; azkenaren azalean «Baionan» datzan arren, azken orrialdean «Pau — Impr. Veronese» irarria da.


Epitriac liburuxkaren bigarren edizioa berrinprimatze zuzendua da. 1887an, dirudienez Bohin artzainak⁵ eskaturik (cf. Canton 1910: 258), Biblia Sozietateak 3 000 ale berrinprimarazi zuen, «revised by the translator with the help of J. Vinson» (Phillips 2015). Edizio lanetan Ana Ürrütiren beraren esku hartzea azpimarratua izan da: «amb l'assessorament de Vinson ella mateixa revisava les seves edicions» (González i Pastor 1994: 25).

1873an argitara eman zituen bi liburuez landara, euskal bibliografietan ez da Ürrütiren ekoizpenaren bestelako seinalerik. Dena den, pentsatzekoa da ozaztarrak gehiago itzul edo idatz lezan. Sorterritik urrun ere, haren baitan ebanjelizatzeko grina ez zen iraungitzen: «Je voudrais pour plus tard traduire quelque chose de plus en basque» (23. gutuna. Londres, 1874-1-15); zorigaitzez, deus gehiago ez dakigu.

Bai dakigu, ordea, Londreseko urteetan Ana Ürrütik Louis-Lucien Bonaparte urgatzi zuela, besteak beste, Archuren itzulpenen editoretza bere gain hartuz, hots, Ruthen, Salomonen eta

⁵ Seguruenik Auguste Césaire Bohin, Belokeko artzaina (1869-1906). Moselako departamenduan sortua, protestantismoa hartu zuen eta Genevako teologia fakultatean ikasi (Tucóo-Chala 2005: 22).

Jonasen liburuen, gehi *Jenesaren* eta *Dabiden gorantzak* edo psalmoena.⁶ Testu gehiago idatzi ala ez, gauza jakina da testugintzan hala edo nola segitu zuela: «Anna Urruty trouva une partie de sa récompense dans le privilège qui lui échet, de pouvoir aider considérablement à la traduction d'autres portions de la Bible dans le dialecte souletin, sa langue maternelle» (Lortsch 1903: 41).



1. irudia

Ana Ürrütiren bi itzulpenen lehen edizioaren azalak (Cazals, 1873).

2.3. Itzulpenaren iturriez

Autore protestanteek jaso dutenez, Ana Ürrütik «translated the Gospel of St John and the Epistles of St Peter from the French of de Sacy and Ostervald into the Souletin of her childhood» (Canton 1910: 258). Zehazkiago, erran izan da, ezen Ürrütik «followed the text of de Sacy, corrected by that of Ostervald» (Bliss 1891: 142); edo «elle traduisait sur la version de Sacy, qu'elle rectifiait au moyen d'Ostervald» (Lortsch 1903: 41). Agirrek (2016)

⁶ «In the year 1887 Prince Lucien Bonaparte placed at the disposal of the above society his manuscript versions of Genesis, Psalms, Ruth, Jonah, and Song of Solomon, made by M. Archer [*sic*]. Under the editorship of Miss Urruty these portions have been published since 1888» (Bliss 1891: 142).

«[In 1888] appeared also 500 copies of Ruth, Jonah, and the Song of Solomon from the Souletin version which Prince Lucien commissioned from M. Archu; and the Prince was reading the proofs of Genesis and the Psalms when his eyesight failed, and the undertaking was indefinitely postponed» (Canton 1910: 258).

xehetasunak ematen ditu Ürrütiren itzultzaile jokamoldeaz, *Ebanjelio Saintia* ontzean Sacy zein Ostervald jarraitu zituelako hipotesia bermatuz, mahai gainean bi-biak balitu bezala aritu baitzen. Hori ez ezik, itzulpen horretan Ürrütik euskarazko bertsioak ere baliatu zituela frogatu izan da (Padilla-Moyano 2025: 94-95), bederen honako biak: i) Baionan 1828an argitaratu zuten *Testament Berria*, *OEhk TB* laburduraz aipatua; eta ii) Maurice Harrietek moldatu Haranederren itzulpena, Baionan 1855ean argitaratua eta *OEhk HeH* laburduraz aipatua.

Jondane Phetitiren Epitriac nondik itzuliak diratekeen argitzekotzat, komenigarri iruditut zait Sacyri eta Ostervaldi beste itzulpen baten gehitzea: David Martinen *Sainte Bible* (1696), mundu protestantean arrakasta eta eragin handiko testua izan dena, Genevako Biblian oinarritua. Hain zuzen, Martinen itzulpenaren 1855eko bertsioarekin lan egin dut (ikus § 3). Euskarazko bertsioak direnaz bezainbatean, gogoratu behar da Itun Berriaren euskaratzaile guztiek ez dituztela Pedroren epistolak itzuli. Horregatik, Ürrütiri *Ebanjelio Saintiaren* itzulpenean dudarik gabe baliatu zitzaion Haraneder-Harrieten bertsioa epistolen konparantzatik baztertu da. Horren despit, Duvoisinin *Bible Saindua* (1859-1865) azterkatu dut —halere, edizioan gaindi ikusiko denez, ez dirudi Ürrütik bertsio hori mahai gainean zuenik—.

3. Edizioaz

Erran den bezala (§ 2.2), Ana Ürrütiren *Jondane Phetitiren Epitriac* itzulpenak bi argitaraldi izan zuen: 1873an (Cazals, Baiona) eta 1887an (Veronese, Paue). Badakigu Epistolen bigarren edizioa Ürrütik berak zuzendu zuela, Vinsonekin batean. Hortaz, bigarren inprimatze hori lehena baino artatsuagoa dela pentsa liteke; puntu horren argitzeko, bi bertsioak erkatu ditut. Deus baino lehen, ohartarazi behar da *Ebanjelio Saintia* liburuaren bi edizioak ez bezala, *Epitrien* bi argitaraldiak oso antzekoak direla, moldiztegiko kaxak batetik bestera gorde balituzte bezala. Jarraian joera batzuen berri ematen da; halere, xehetasunak edizioko ohar paleografikoetan aurki daitezke.

1887ko argitaraldiak 1873koaren 27 huts egoki zuzentzen du: adibidez, *ete* → *eta* I 1,7; *Jesusus* → *Jesus* I 1,11; *hehar* → *behar* I 1,11; *desiretarie* → *desiretaric* I 2,11; *aiguriac* → *ainguriac* II 2,4; *Gomorrhoco* → *Gomorrhaco* II 2,6; *dutic* → *dutie* II 2,14. Aldiz, 1887koak 1873koaren 30 akats errepikatzen du: adibidez, *arrotz* ordez *orrotz* I 1,1; *othoitcen baducie* ordez *othoitce baducie* I 1,17; *ciradelaric* ordez *ciradetaric* I 2,4; *gaizki eguile* ordez *gaizki eguite* I 2,12; *diener* ordez *dienec* I 2,14; *nahaskerietarat* ordez *nahaskertetarat* I 4,4; *beitira* ordez *beitcira* I 4,11; *perfecciona* ordez *perfeccione* I 5,10; *sartçapena* ordez *sortçapena* II 1,11; *beitutie* ordez *beitucie* II 2,1; *horic oro* ordez *horic oroc* II 3,11 edo *dutugu* ordez *ditugu* II 3,13. Bi aldiz 1887ko argitaraldiak okerreko zuzenketa egiten du: *beito* → *beita* I 3,19 (*beitu*

behar duelarik) eta *ciren obra* → *obra* II 3,11 (*cien obren* behar duelarik) eta, larriago dena, 1873koan zuzen ziren hamar forma oker bihurtzen du: *preciousaz* → *preciousac* I 1,19; *saintiac* → *saintia* I 3,5; *hitzemanez* → *hizemanez* I 3,21; *hiltcia* → *hiltcio* I 3,22; *ountxa* → *outxa* I 4,14; *botz batez* → *botz* II 2,16; *goiçanco* → *goiçano* II 1,19; *ene* → *enne* II 3,17; *desirez* → *desiraz* II 3,12 eta *eztirenec* → *extirenec* II 3,16.

Gainerakoan, 1873ko eta 1887ko edizioen arteko hainbat dibergentziak zerikusia du bi ezaugarri fonologikorekin. Lehenik, 1873koan maiz Ürrütik hiperzuzenketaz ebazten ditu dardarkarien lenizioaren ondoriozko zalantzak, eta 1887ko argitaraldian korrejitua dira: *eraiten* → *erraiten* II 1,12; *ciren* → *cien* ‘zuten’ II 2,13; *cireki* → *cieki* II 2,13; *hourez* → *houez* II 3,6. Bigarrenik, silaba kodan —bereziki herskari aitzinean— anixko dira txistukarien neutraltzearen seinale izan daitezkeen grafiak, 1887ko edizioan ez beti egoki aldaturik: adibidez, *gaiski* → *gaizki* I 3,9 baina *esprabia* → *ezprabia* I 1,7. Bi sail horietakoak ez ditut faltatzat hartu; halakoetan bigarren edizioa gehiago hurbiltzen da forma fonologikoetara, eta edizio kritikoan horiexek hobetsi dira. Bestenaz, desadostasun batzuk kontu grafiko huts dira: *gaignetic* → *gagnetic* II 3,3; *ouhouigna* → *ouhougna* II 3,10. Azkenean, kontu grafikoez harago doazen desadostasunetan 1873ko formak lehenetsi dira, Ürrütiren zubereraren lekuko leialagoak direlakoan: *sousmis* → *soumis* I 3,1; I 3,5 & I 5,5; *bardin* → *baldin* I 3,14; I 4,18.

Labur bilduz, *Jondane Phetiriren Epitriac* testuaren bigarren argitaraldiak leheneko hutsen erdia zuzentzen du, baina zenbait oker berri dakar. Aipatu aferez landara, 1887koak 1873koak baino puntuazio zainduagoa erakusten du. Horregatik guztiagatik, *Epitrien* bigarren argitaraldia lehena baino zuzenagoa delako baieztapenari ñabardurak egin behar zaizkio. Nolanahi ere den, edizio kritiko baten beharra agerian gelditu da. Horretarako, 1873ko eta 1887ko edizioen orrazketa sistematikoa ez ezik, Ürrütik itzultzean baliatu zituzkeen iturriekiko konparantza ere egin dut. Honat *Jondane Phetitiren Epitriac* editatzerakoan erabili bertsioen zerrenda, esleitu zaizkien laburdurekin —ahal delarik *OEH*renak—:

- A = Ürrüti, Ana. 1873. *Jondane Phetiriren Epitriac*. Baiona: Cazals. Transkribatu eta erabili alea Gipuzkoako Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogoan da, Oñatiko Artxiboan gordea J.U. C4714 b signaturaz.
- B = Ürrüti, Ana. 1887. *Jondane Phetiriren Epitriac*. Paue: Impr. Veronese. Koldo Mitxelena Kulturuneko katalogokoa, Oñatiko Artxiboan gordea J.U. C4714 signaturaz.
- Sacy = Lemaistre de Sacy, Louis-Isaac. 1855. *La Sainte Bible, contenant l'Ancien et le Nouveau Testament, traduite sur la Vulgate par Le Maistre de Sacy*. Brusela: Société Biblique Britannique et Étrangère.

- Ost = Ostervald, Jean-Frédéric. 1867. *La Sainte Bible qui contient le Vieux et le Nouveau Testament. Revue sur les originaux par J. F. Ostervald. Avec des paralleles.* Brusela: Société Biblique Britannique et Étrangère.
- Mart = Martin, David. 1855. *La Sainte Bible qui contient le Vieux et le Nouveau Testament* [1744ko bertsioaren berrikuspena]. Brusela: Société Biblique Britannique et Étrangère.
- LSG = Segond, Louis. 1910. *La Sainte Bible qui comprend l'Ancien et le nouveau Testament traduits sur les textes originaux hébreu et grec.* Alliance Biblique Universelle.
- Lç = Leizarraga, Joannes. 1571. *Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria.* Arroxela: Pierre Hautin.
- TB = 1828. *Jesus-Christo gure Jaunaren Testament Berria. Lapurdico escuararat itçulia.* Baiona: Lamagnière.
- Dv = Duvoisin, Jean-Pierre. 1859-1865. *Bible Saindua edo testament zahar eta berria Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehembiziko aldizko laphurdiko eskarara itzulia Luis-Luziano Bonaparte Printzeak argitara emana.* Londres: Strangeways and Walden.

3.1. Edizio irizpideak

Heinik handienez, presenteko edizioa Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* itzulpenaren edizio kritikoa hartu ziren erabaki eta irizpideei jarraitzen zaie:

- 1) Jatorrizko grafien atxikitzea. Bi argitaraldien arteko dibergentziek grafia hunkitzen dutenean, 1873ko hautuak hobetsi dira, bi salbuespenekin: i) dardarkarien neutraltzearen eta galeraren ondoriozko grafietan, eta ii) leherkari aitzineko frikari lepokarietan. Bi kasu horietan forma fonologikotik —ez fonetikotik— hurbilago gertatzen diren aldaerak hautatu dira.
- 2) Hutsen zuzenketaz landako desadostasunak direlarik, 1873ko formen eta moldeen hobestea, egilearen gogotik eta hizkeratik hurbilago direlakoan.
- 3) Testuaren jatorrizko lerroakadak atxikitzea, hots, bertsetka.
- 4) Hitz zatiketa euskara batuaren arauetara ekartzea: *arra phiztiaz, ukhen arazteco, amorioua gatic, halabiz, beren ganatcen* → *arraphiztiaz, ukhenarazteco, amoriouagatic, hala biz, berenganatcen*, etab.

- 5) Puntuazioa gehi letra larri eta xehearen erabilpena egungo arauetara egokitzea.
- 6) Testuaren barneko estilo zuzena eta aipuak kakotx latindarren artean ematea: «estilo zuzena eta aipuak».
- 7) Aparatu kritikoaz denaz bezainbatean, oharrak bi multzotan bereiztea: (i) azalpenezkoak, orri pean emanak; eta (ii) zuzenketen berri ematen dutenak, testuaren kapitulu bakoitzaren ondoan bilduak. Epistolen testua bertseten arabera zenbakitzean ezarria denez, bi sailetako oharrek dagozkien bertsetetara igortzen dute, halako maneran, non testuan ez baita oharretarako deirik txertatzeko beharrik izan.

4. Erreferentziak

- Agirre, Pello. 2001a. Belapeireren grafiak. *ASJU* 35(1). 299-361. <https://doi.org/10.1387/asju.8833>.
- Agirre, Pello. 2001b. *Catechima laburra*, zubereraren ezaugarri fonologikoen lekukoa. *ASJU* 35(2). 653-787. <https://doi.org/10.1387/asju.8849>.
- Agirre, Pello. 2016. Belapeireren hiztegia eta zubereraren lexiko historikoa. Eskuizkribu argitaragabea.
- Bliss, Edwind M. 1891. *The Encyclopaedia of missions. Descriptive, historical, biographical, statistical. With a full assortment of maps, a complete bibliography, and lists of Bible versions, missionary societies, mission stations, and a general index. Volume I.* New York: Funk and Wagnalls.
- Camino, Iñaki. 2016. *Amiküze eskualdeko (h)eskuara (Mendaur bilduma 11)*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Canton, William. 1910. *A history of the British and foreign Bible Society. Vol. 4.* Londres: John Murray.
- Gèze, Louis. 1873. *Elements de grammaire basque. Dialecte souletin*. Baiona: Lamagnère.
- González i Pastor, Joan. 1994. La Bíblia a Euskal-Herria. *Catalunya Cristiana. Setmanari popular d'informació i de cultura religioses* 787 (20 d'octubre de 1994). Bartzelona: Fundació Catalunya Cristiana, de l'Arquebisbat de Barcelona.
- Haritschelhar, Jean. 1969-1970. *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun (= Euskera 14 & 15)*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Hoffmann, Frau Adolf (= Rossier, Aline). 1922. *Wie ein schöner Traum – Letzter Gruß an Frauen und Töchter*. Luzerna, Meiringen & Leipzig: Walter Loeptien-Klein.
- Ithurry, Jean. 1895. *Grammaire basque. Dialecte labourdin*. Baiona: Lamagnère.
- Lortsch, Daniel. 1903. *La Bible dans le monde et le principal instrument de sa diffusion*. Paris: Société biblique britannique et étrangère.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Analyse diachronique du dialecte souletin (XVI^e – XIX^e siècles) – Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa (XVI – XIX. mendeak)*. Vitoria-Gasteiz & Bordele: UPV/EHU & Université Bordeaux Montaigne-ko doktorego tesia..

- Padilla-Moyano, Manuel. 2018. *Feitac espravi dutuçu: partizipio sail berri bat Zuberoan*. *ASJU* 52(1-2). 579-596. <https://doi.org/10.1387/asju.20220>.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2019. Txistukari ozenak Zuberoako testuen argitara. In Irantzu Epelde & Oroitz Jauregi (arg.), *Bihotz ahots. M. L. Oñederra irakaslearen omenez*, 457-480. Bilbo: EHU.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2023. *Aucun prophète n'est bien reçu dans son pays*. Ana Ürrüti (1826-1900) ebanjelista eta itzultzailearen bizitza eta gutunak. *ASJU* 56(2). 251-307. <https://doi.org/10.1387/asju.24116>.
- Padilla-Moyano, Manuel. 2025. Ana Ürrütiren *Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* (1873). *ASJU* 59(1). 89-159. <https://doi.org/10.1387/asju.26564>.
- Phillips, Susan. 2015. Bible Society database complete catalogue. Bathurst: Charles Sturt Universityko eskuizkribua.
- Tucóo-Chala, Suzanne. 2005. Les pasteurs de Bellocq de 1563 à 2005. *Bulletin du Centre d'études du protestantisme béarnais* 37. 21-23.
- Vinson, Julien. 1891. *Essai d'une bibliographie de la langue basque*. Paris: Maisonneuve (Berrargit. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 1984).

Anna Urruty

Jondane Phetiriren epitriac

Bayonan

1873

Jondane Phetiriren lehen epitria

I CAPITULIA

¹ Pierrac, Jesus-Christen apostoliar, fidel diener, arrotz eta barreiatuic beircirade Ponten, Galatian, Capadocen, Azian, eta Bithynian;

² haitaturic Jinco Aitaren bethiereco jakitiatien arabera, Ezpirituen santificacioniaz, obeditceco Jesus-Christi, eta pharte ukheiteco haren odolaren aspercian. Jincouac handi deçala gracia eta bakia cietan!

³ Jinco Jesus-Christ goure jaunaren Aita içan bedi benedicatia, çoignec bere misericordia handiaz arrasorraci beikutu esperantça bici baten ukheiteco, Jesus-Christen hiletaric arraphiztiaz,

⁴ ukhenarazteco primantça galtcen ahal ezten bat, ez gastatcen, ez tchimaltzen, çoign erreservaturic beitchaiku celian,

⁵ çoignac beguiraturic beikira Jincouaren photeriaz, fedieren medioz, amorecatic opteni deçagun salbamentia, çoign prest beita eçagutaraciric içateco azken demboran.

⁶ Hartan boztariotcen beircirade, nahibada orai behar ducien soffritu phena souberte çoimbait dembora bouchi batez, ceren hori combeni beita;

⁷ amorecatic cien fedieren esprabia, urhe galtcen dena beno hanitchez baliousagoua, eta çoign hati suiaz esprabaturic beita utçul dadin cien laidoriotarat, Jesus-Christ aguertcen datekian egunian;

¹ *beircirade*: bertsioen arabera, Pedro 2. ala 3. pertsonaz mintzo da. Cf. *çareten* Lç; *diren* TB & Dv; *qui sont* Ost & Sacy; *qui êtes* Mart.

⁵ *beikira*: bertsioen arabera, 1. nahiz 2. pertsonan. Cf. *beguiratzen çaretenonçat* Lç; *çoinac* baigare *beguiratuac* TB; *zeinak* [...] *zainduak* baitzarete Dv; *Qui sommes gardés par la puissance de Dieu* Ost; *à vous que la vertu de Dieu garde par la foi* Sacy; *qui sommes gardés par la puissance de Dieu* Mart; *à vous qui* [...] *êtes gardés par la foi* LSG.

⁵ *opteni*: horrela bi edizioetan. *OEhk* ez du *opteni* grafiaren adibiderik. Tipografiari dagokionez, eta hutsaren hipotesiaren aurka, moldiztegiko kutxatilik ez dezake, ifrentzukatzean, p letraren itxura eman, halako q batena baizik. Aitzinago bada *openitu* II 1,1; errepikatze hori grafia fonetikoaren hipotesiaren alde doa.

⁶ *souberte*: hitz honetako *b* epentetikoa ezaguna da Zuberoan. Bokalismoa gorabehera, *OEhk* ondokoetan lekukotzen du epentesia: *Uscara Libria*, Chaho, Etchahun eta Althabe.

⁷ *urhe galtcen dena*: izen ondotikako erlatibo honek bat egiten du 1828ko itzulpen protestantearekin (*urrhe galtcen dena baino hainitchez baliosagoa*), baina ez Leizarragarekin (*vrrearena cein galtzen baita*) eta Duvoisinekin (*suaz frogatzen den urhea baino baliosagoa dena*).

⁷ *hati*: ‘haatik’. *OEhk* ez du aldaera hau HAATIK sarreran bildu; HATI sarrerakoa, harridurazko perpausetakoa, arras bestelakoa da. Cf. *cein galtzen baita eta halere suz phorogatzen* Lç; *eta çoina* guciarequin ere *frogatua baita suaz* TB; *et qui toutefois est éprouvé par le feu* Ost; *qui est éprouvé par le feu* Sacy.

⁸ çouign maite beitucie ikhoussi gabe, eta nahibada orai eztucien ikhouston, sinhesten beitucie hartan, eta boztariotcen cirade boztario ecin erran eta glorious batez,

⁹ eramaitez cien fedieren muga, çouign beita arimen salbamentia.

¹⁰ Salbamentu hori ičan da profeten tcherkhatce chehiaren eta phenxamentu barniaren objeta, çouignec profetisatu beitie cier erreserbaturic cen gracia,

¹¹ tcherkhatcez souagnouski nouiz, eta çouign demboratan Jesus-Christen ezpiritu hetan cenac errendatcez aiticinetic jakitatia, Christi heltu behar ceitçon soffrantchac, eta ondotic jin behar ceion gloriáz.

¹² Eçagutaraciric ičan ceren gaiça horien ministro cirela, ez hayen beren, bena bai gouretaco, çouign gaiça, berri houna pheredicatu deitcienec celuti igorri Ezpiritu Saintiaz, orai anontçatu beteicie, eta çouintan aingurieç desiratcen beitiere ikhoustia.

¹³ Ciec arren, cien enthelegamentiaren erraignac unguraturic ukhenez, eta çuhur ičanecz, eguruki eçacie esparantça bethe bateki presentaturic çaicien gracia, Jesus-Christ aguer artino.

¹⁴ Haur obedientac beçala, etciradelaric conformatcen cien beste orduzco jakin gabe demboraco nahukente gastouer.

¹² *hayen beren*: benefaktibozko erran-nahia, ‘haientzat berentzat’ edo ‘haientak berentako’. Ekialdeko mintzoetan genitiboak hobeki atxiki ditu bere balio semantikoak eta, beraz, postposizio konplexuen gaineko nolabaiteko kontzientzia atzematen ahal da, horregatik pasarte honetan aski da *-tako* behin agertzea: *ez hayen beren, bena bai gouretaco*. TBren bertsioan *-tzat* morfoa bi aldiz erabilia da: *ez heyen berentzat, bainan bai guretçat* —egungo batuan hiru aldiz beharko litzateke—; cf. *etzituztela berentzat, bainan-bai zuentzat ezagutarazten* Dv.

¹² *beitire*: Zuberoko dardarkarien lenizioaren ondoriozko hiperzuzenketa; jakina, *beitie* ‘baitute’ irakurri behar da. Zubereraren elkarri lotuak diren bi aldaketa egikaritu dira, komunzki *dardarkari* gisara izendatzen ditugun hotsen sailean, bokal artean: (i) /r/ fonema ahuldu da [r] gisara gauzatua izateko; eta (ii) /r/ desagertu da. Caminok dioenez, bokal arteko /r/ fonema XIX. mendean galdu da, «sistematikoki galdu ere» (2016: 136). Horiek direla kausa, zubererazko testu berankorretan anitz dira <eran> ‘erran’ bezalako grafiak, bai eta <erraci> ‘erazi’ edo <ciren> ‘zien’ bezalako hiperzuzenketak ere. *Epitrien* 1873ko argitaralditik 1887kora Ürrütik eta Vinsonek honakoak zuzentzen dituzte: *eraiten* I 1,12, *laburen* II 1,14, *interres* I 5,2, *hourrez* II 3,6, *ditçatciren* II 1,15, *cireki* II 2,13, *ciren* (hainbatetan) → *erraiten*, *laburren*, *interes*, *hourez*, *ditçacien*, *cieki*, *cien*.

¹⁴ *beste orduzco*: frantsesaren *d'autrefois* sintagmaren kalkoa. OEhk BESTE ORDUZ azpisarrera dakar (s.v. BESTE), «En otro tiempo, antaño [...] Documentado sobre todo en autores septentrionales. [...] Entre los suletinos las formas sincopadas (*bestorduz*) son más frecuentes, aunque no generales». Horrezaz gainera, badu BESTE ORDUZKO azpisarrera, lapurterazko adibide bakan batez: *Gogorat ekhartzen nuen bertze orduzko Jainkoaren Amaren imaxina hura* MarII 76. Ene ustez, Ürrütik 1828ko itzulpen protestantea zukeen mahai gainean; cf. *Haur obedientec beçala, ez çaitetzelaric conformatcen zuen berce orduzco yaquin gabe demboraco guticia lizunei* TB.

¹⁴ *nahukente*: «La forma más general es *nahikunde*, salvo en suletino, donde hay mayoritariamente *nahikünte* y, menos frecuentemente, *nahikenti(a)*, *nahükünte*, *nahükente* y *nahikündü*» (OEh s.v. NAHIKUNDE; Ürrütiren adibide hau biltzen du). Dena den, *nahükente* balizko aldaeraren lekukotasun guztia adibide honexetan datza, Ürrütik bestenaz *nahikentiez* II 2,18, *nahikuntetic* EvS 1,13 & *nahikhentia* EvS 17,24 idazten baitu.

¹⁵ Bena noula deithu çutiena saintu beita, ciec ere ber guisan saintu içañ citaie cien counduta orotan,

¹⁶ ceren izkiribaturic beita: «Saintu içañ citaie, ceren saintu niz».

¹⁷ Eta othoitcen baducie cien Aita beçala, jenten uduriari casuric eguin gabe jujatcen diana bakhotchha bere obren arabera, goberna citaie creintan lurren gagnen ciraden demboran,

¹⁸ dakicielaric etciradela gaiça galcorrez, cilharrez edo urhez arraerosiric içañ cien conduta bano hountaric, çouign errecebitu beitçunien cien aitenganic,

¹⁹ bena bai Jesus-Christen odol preciousaz, achouri estakuria eta thona gabe den beçala,

²⁰ dejadanic ordonaturic mundia creatu beno lehen, bena aguertia azken demboran cientaco,

²¹ çougñec hartçaz sinhesten beitucie Jincouaren beithan, çougñec hiletaric arraphiztu beitu, eta eman beitero bere gloria, amorecatic cien fedia eta cien esparantça içañ ditian Jincouatan.

²² Chahaturic arren cien arimac, obeditcez eguiari Ezpiritu Saintiaz, amorecatic ukhen deçacien amorio anayetiar eta eguiazco bat, algar maita eçacie trendeki eta bihotz chahu batez,

²³ arrasorthuric içañ beircirade, ez aci gastatcen ahal den batez, bena gastatcen ahal ezten batez, Jincouaren elhiaz bici eta egoiten beita eternitatecoz,

²⁴ ceren araguaia oro belharra beçala da, eta guiçonaren gloria oro belharraren lilia beçala: belharra eyhartcen da, eta haren lilia erorten,

²⁵ bena Jaunaren elhia egoiten da seculacoz. Eta berri houneco elhe hora da anontçaturic içañ çaiciena.

I 1,1 arrotz] A B *orrotz*; cf. Lç *estrangerey* : TB *arrotcei* : Dv *arrotz*. **I 1,2** ezpiritiaren santificacioniaz] A B *ezpiritu santificacioniaz*; cf. Lç *Spirituaren sanctificationetan* : TB *Izpirituaren santificacioneaz*. **I 1,7** eta] A *ete*. **I 1,10** Salbamentu hori] A B *Salbamentia hori*; cf. Lç *Saluamendu hunez* : TB *Salbamendu hori* : Dv TB *Salbamendu hari* : Ost Sacy *ce salut* : Mart *Duquel salut*. **I 1,11** Jesus-Christen] A *Jesusus-Christen*. || behar] A *hehar*. **I 1,12** hayen beren] A *hayen heren*; cf. Lç *bere buruey* : TB *heyen* : Dv *berentzat*. **I 1,17** othoitcen] A B *othoitce*; cf. Lç *inuocatzen* : TB *deitcen* : Dv *deitzen* : Ost Sacy Mart *invokez*. **I 1,19** preciousaz] B *preciousac*; cf.

¹⁵ *counduta*: sudurkari aitzineko *o*-ren igotzea bermatua da; cf. *counduta* I 3,2 & I 3,16, *coundutari* I 5,2; grafia gordetzaila ere erabilia da: *conduta* I 1,18 & I 2,12.

¹⁷ *creintan*: ‘beldurrean’. Forma hau zubereran baizik ez da lekukotzen; honat *OEH*ren adibideak (s.v. KRAINTA): «*Zer nahi den klarki / krinta gabe minzadi*. Xarlem 1269. *O gogua mustrua, / Jinkuaren krinta gabia!* Ib. 1019. *Jinkuaren kreintan bizitzen bagira*. UskLibB 88. *Küñater beria eman, haurrer Jinkuren kreinta*. Etch 152». Ürrütik *kreinta* eta *lotxa* aldizkatzen ditu: *creintan* I 1,17 & I 3,2, *creintaric* I 3,16, *lotxa* I 2,17, I 3,14 & II 2,10, *lotxaz* II 3,17.

¹⁹ *estakuria eta thona gabe*: hemen *gabe* karitiboak koordinazio osoari dagokio; horregatik ediziogileak bereiz uzten du; cf. *bildots estacuru gabe eta tatcha gabea* TB.

²⁰ *dejadanic*: Ekialdeko tradizioan lekukotzen da, bakanki: *OEH*k Laveuxvilleren katiximako adibide bat baizik ez du jasotzen. Ürrütik behin erabili du bere *Ebanjelio Saintian* (13,2), eta bitan Phetiriren epistoletan (I 1,20 & II 3,17).

²⁰ *ordonaturic*: lekukotasun urrikoa, «se documenta la forma *ordonatu* en un ejemplo de Leizarraga (1 Cor 11, 34) y en otro de Gasteluçar, en ambos junto a *ordenatu*».

²² *anayetiar*: ikus *anaie* I 3,8 eta bertako oharra.

²² *trendeki*: Zuberoan bada *tendre* zein *trende* (Etch, Mardo).

Lç odol *preciosoaz* : TB odol *preciatuaz* : Dv odol *baliosaz* : Ost Sacy Mart *par le précieux sang*. I 1,22 amorecatic] A amorecalic. I 1,23 aci] A asci. I 1,24 belharra] A helharra.

II CAPITULIA

- ¹ Ciec arren errenontciaturic malecia, falxukeria, bekhasteria eta medisentcia orori,
² desira eçacie azcarki, haur sorthu berriac beçala, cien haztia elhiaren ezne chahu eta ezpiritualaz, hartçaz handi citaïen.
³ Balimbada kicie Jauna çougñen houn den,
⁴ eta huillantcen ciradellaric hari, çouign beita harri bicia, utciric guiçonez, bena Jincouaz haitatia eta preciousa,
⁵ ciec ere, harri bicia beçala, sar citaie edifician, içan citaïen ezpirituzco etche bat, eta sacerdocio saintu bat, eskentceco ezpirituzco sacrificio Jincouari agradagarriac Jesus-Christez.
⁶ Hartacoz erranic da izkiribian: «Eçarten dut Sionen harkantuco harri buruçaguia, haitatia eta preciousa; eta nourc ere sinhestxico beitu hartan ezta confus içanen».
⁷ Preciousa da cientaco, çougñec sinhesten beitucie; bena sinhestegabe dienen, errana da: «Edificia eraikitcen cienec utci dien harria, hora da kantouco harri buruçaguia, harri eragoisle bat, escandalezco harri bat».
⁸ Çougñec joiten beitre elhiaren countre eta errenbes beitra, sinhestegabe batez hortara içan dira ere destinaturic.
⁹ Bena ciec arraça haitatia cirade sacerdocio ordre erreguezcoua, nacione saintia, populu eresia, amorecatic anontça diçatcien ulhumpetarc argui miracuilluzcoualat deithu çutienaren berthutiac.

² *ezne*: Zuberera zaharraren tradizioan <z> grafema markatua da, artikulazio-gunea goiti-beheiti, txistukarien [+ ahostun] tasuna adieraziz. Halakoa da, bestalde, *plazer* I 2,19 & II 2,13 (Zubereraren txistukari ahostunen irudikatze grafikoaz denaz bezainbatean, ikus Agirre 2001a: 335-336; Agirre 2001b: 744-749; Padilla-Moyano 2019).

⁶ *harkantuco*: *k(h)antu* hitzak azentu oxitonoa du, eta bokal sudurkaria; *OEHk* (s.v. KANTOI) *kantũ* lekukotzen du Zuberoan, baina ez *kantũ*. Etsenplu honetaz landara, Ürrütik beste agerraldi bat ematen du: *khantuti* EvS 6,23; halere, ondoko bertsetean *khantou* ageri da.

⁶ *sinhestxico*: <stx> grafema ez dateke huts; *Ebanjlio Saintian* bitan ageri da, eta bietan *sinhetsi* aditzarekin: *sinhestx* 13,19 & *sinhestxi* 17,8.

⁷ *errana da*: Ürrütik bat egiten du 1828ko lapurterazko itzulpenarekin eta Martinekin; cf. *errana da* TB; eta *il est dit* Mart. Gainerako bertsioek, aldiz, ez dute horren baliokiderik: *bainan sinhesten eztutenen, harri edificaçaléc arbuyatu vkan dutena cantoineco principal eguin içan da* Lç; *bainan sinhesten ez dutenez bezembatean, etche egileek hastandu harria, hura egin da izkina buruko harri* Dv; *mais pour les incroyables, la pierre que ceux qui bâtaient ont rejetée...* Ost; *mais pour les incroyables, la pierre que les architectes ont rejetée...* Sacy.

⁸ *errenbes*: «persona cuyo espíritu es de contradicción» (Azkue *apud* *OEH* s.v. ERREBES); «Revêche», «retors» Larrasquet.

⁹ Bertset honetan Ürrüti beste euskaratzeetarik baino hurbilago gertatzen da frantses iturrietarik, eta bereziki Sacyrengandik; cf. *generatione elegitua, Sacrificadoregoa reala, gende saindua* Lç; *ethorqui hautatua* [...].

¹⁰ Ciec beste ordur ezpeitciauden haren populua, bena orai Jincouaren populua cirade, ciec ezpeitçunien errecebitu misericordia, bena orai misericordia errecebitu ducie.

¹¹ Ene ountxa maitiac, othoitcen çutiet, arrotz eta bidejantac beçala, beguira citaien araguiaren desretaric, çougneç guerla eguiten beitie arimari.

¹² Condua ounest bat ducielaric gentilen artian, amorecatic cietçaz gaizki mintço bidian gaizki eguile beiticinaude beçala, glorifica decen Jincoua ikhoussico diren egunian, cien obra hounac ikhousiz.

sacerdocio erreguezcoa, yendaqui saindua TB; jendaki hautatua, errege-aphezak, jendaya saindua Dv; la race élue, [...] sacrificateurs et rois, la nation sainte Ost; la race choisie, l'ordre des prêtres-rois, la nation sainte Sacy; & la race élue, la sacraficature royale, la nation sainte Mart.

¹⁰ *ezpeitciauden*: ‘ez baitzineten’. Cf. *Noizpait cinetenac ez populu Lç; Çuec berce ordur haren populua ez cinaztenac TB; lehenago haren populu etzinetelaric Dv; n'étiez point son peuple Ost Sacy. Geroxeago Ürrütik beiticinaude* ‘baitzinate’ I 2,12 dakar, ondoren *cirauden* ‘zineten’ I 2,25 eta azkenean *baciraude* ‘bazinate’ I 3,16. Horiezaz gain, haren *Ebanjelio Saintian* honakoak ageri dira: *baciaude* ‘bazinate’ 8,39 & 9,41 eta *içan baçinaude* ‘izan bazinate’ 15,19. Ürrütiren testuez landara, Zuberoako tradizioan ez da *zinaude(n)* / *ziaude(n)* / *ziraude(n)* lekukotzen. Horrelako etsenplu bakararra Amiküzeko astolaster batean ageri da, transkripzioa zuzena bada: *Süjjet horreki etxian / egoiten ahal zinaudian* (*KanBel* 399). Lapurdiko testuetan, ordea, *zinauden* ‘zeunden’ ongi ezaguna da. Bestalde, Maisterrek eta Egiategik *ginante(ke)* & *zinante(ke)* lekukotzen dituzte, eta zubererazko testu bakan batzuek *ginande* & *zinande*. Lehena izan ezik, ondoko sortako guztiak baldintzazko formak dira: *Ciecq hurren beiticinandeien* / *etzucie arrazcatu* (*StJul* 641), *solamente bacinande* / *çu ene gomendian* (*SteEli* 300), *ceren eta hounki haboro / ahal beituçu eguiten / eciez eta comentu batetan / bacinande cerratcen* (*SteEli* 1025), *Zuri hunki jin egiteko gü baginande kapable!* (*Etch Musde Hegobe*). Gainera, Egiategiren *Ekheian* badira bost *baginande*. Haritschelharrek honela iruzkintzen du *baginande*: «forme ancienne qui équivaut à *bagina*» (1969-70: 539). Ene ustez, galdera da ea Ürrütiren *zinaude*- egiazki hain bakana den zubereraren. Bada, eskuizkribuetan gauza ohikoa da <n> eta <u> grafien bereizteko zailtasunekin talka egitea. Horregatik, *Sainte Elisabeth de Portugal* trajeriako *bacinande* formaren bi agerraldietan berdin irakur daiteke *bacinaude*, eta *Canico et Beltchitine* astolasterreko *cinaudian*, aldiz, berdin irakur daiteke *cinandian*.

¹¹ *bidejantac*: 1873ko zein 1887ko edizioetan <bidegantac>. Irakur aisetasunaren faboretan, hemen <j>-z ordezkatu da. Halere, ez dateke huts; cf. *sargant* /*şarçânt*/ *EvS* 18,3 —han 1888ko edizioak <sarjant> zuzendu zuen—. Zubereraren tradizio grafikoan Ürrütiren hauek ez dira <ga> grafiak /*za*/ ahoskera adierazten dueneko etsenplu bakarrik. Agirrek (2001a: 333) Belapeireren <jugamentia> (I 58) iruzkintzen du, bere edizioan horrela mantentzeko erabakia *Charlemagneren* <jugamentian> izateak lagundu duela. Are gehiago, zubereraren corpus historikoak adibide zerrenda luzexkoa ematen digu: Etchartek *iugaturen* 1,1r, *iugatzeco* 3,1r, *iugamendu* 2,1v & *iugatzeco* 2,1r dakartza; *Charlemagnek jugatu* 160, 641, 681, 1362, *jugaturic* 947, *jugaturen* 1376, *juga* 1369, *jugamentia* 640, 687, 1130, *jugamentiaren* 642, *jugamentian* 950 & *jugamentiaz* 1135; *Saint Julien* trajeriak *jugatcen* 494, 496, 497, 947, 1106, 1370, *jugatcera* 1225, *jugaturen* 1226 & *jugamentu* 049, 497, 499, 501; Etchahunek *jugamentiac* 112.

¹² *bidian*: konparantzan erabili diren iturrien artean, hitz hau XIX. mendeko lapurterazko itzulpenetan agertzen da; cf. *gaizquigulez beçala* Lç; bidean *gaizqui eguile batçu bacinazte beçala* TB; *gaichtagin batzuentzat bezala gaizki mintzatzeko bidean* Dv; *comme si vous étiez des malfaiteurs* Ost; *comme si vous étiez des méchants* Sacy; *comme de malfaiteurs* Mart; *comme si vous étiez des malfaiteurs* LSG.

¹² *beiticinaude*: ‘baitzinate’; ikus *ezpeitciauden* I 2,10 eta bertako oharra. Cf. *bacinazte beçala* TB *comme si vous étiez* Ost, Sacy.

¹³ Ičan citaie, arren, soumis persouna orori, Jincouaren amoriouagatic, noula Erregueri, besteren ororen gagnecoua den beçala,

¹⁴ noula gobernadore haren phartez igorriric diener, gaizki eguiten dienen punitceco, eta ountxa eguiten dienen ouhouratceco.

¹⁵ Ceren hau da Jincouaren boronthatia cien bici hounaz, cerra deçacien guiçon centçugabe eta ignorant dienen ahoua.

¹⁶ Goberna citaie libre beçala, eta ez cien libertatia beçala gaizki eguiteco, bena Jincouaren cerbutchari beçala.

¹⁷ Ouhoure ekhar eçacie orori, maitha itçatcie cien anaiac oro, ičan citaie Jincouaren lotxa; ouhoure eçacie Erregue.

¹⁸ Cerbutchariac, soumis ičan citaie cien buruçaguier errespetu orotan, ez solamente houn eta justo diener, bena gaisto diener ere.

¹⁹ Ceren hori agradable da Jincouari, nouiz ere nourbaitec Jincouari plazer eguitiagatic, pacentciareki soffritcen badutu phena injoustouac.

²⁰ Bestela cer gloria dukecie gaizki eguin ducienian, soffrituric ere pacentciareki? Bena ounxa eguiten ducielaric soffritcen baducie pacienki gaizki eguiten deitcienac, horra cer çaion agrada Jincouari.

²¹ Ceren hartara deithuric cirade; Jesus-Christec soffritu dialacoz gouretaco, uzten deikularic exemplia, amorecatic jarraiki guitian haren urhatxer.

²² Harec ezpeitu bekhatuic batere eguin, eta çougñen ahotic ezpeita secula falxukeriaric batere elkhi.

²³ Injurioz cargatu cienian, ezpeitcian arrapostu emaiten injurioz; bena eman cen justoki jujatcen dianari,

¹³ *soumis*: 1873ko edizioan Ürrütik bitan ematen du *soumis* (I 2,13 & I 2,18) eta hirutan *sousmis* (I 3,1; I 3,5 & I 5,5); 1887ko edizioak denetan utzi du *soumis*. Bi-biak Ürrütiren zubereraren lekuko direlakoan, hemen batzuk zein besteak utzi dira. Bestenaz, forma hau bereziki errota da Zuberoako tradizioan, *sumes*, *süsmes* eta *süsmis* aldaerekin (*OEH* s.v. SUMIS).

¹⁴ *governadore haren phartez igorriric diener*: izen ondolikako erlatiboa, egungo batuaz *haren partez igorriric diren gobernadoreei*.

¹⁹ *plazer*: hemen <z> grafema markatua da frikari ahostunarentzat; cf. *ezne* I 2,2.

¹⁹ *injoustouac*: Zuberoan espero ez den bokalismoa; 1873 zein 1887ko edizioek horrela dakarte, eta berriz ere II 2,19 bertsetean. Bestenaz, cf. *justo* I 2,18, II 1,13 & II 2,8, *justoua* I 4,18, II 2,7 & II 2,8, *justouac* I 3,18, *justouen* I 3,12, *justoki* I 2,23, *justicia* II 3,13, *justiciaren* I 3,14, II 2,5 & II 2,21, *justician* I 2,24, *justiciaz* II 1,1, *injoustouentaco* I 3,18 eta *injusticia* II 2,15.

²⁰ *agrada*: XIX. mendetik honateko zubereraren baizik ez da bildu *agrada izan* aditz lokuzioa (*OEH* s.v.). Joskera unipertsonalean erabil daiteke —*Stimulus* delakoa instrumentalean delarik— ala, hemen bezala, joskera bipertsonalean, absolutibo-datiboazko komunztaduran.

²⁴ çougneç eraman beituu goure bekhatiaç bere khorpitzian khurutchèn gagna; amorecatiaç hilic içañez bekhatiaç, bici guitian justician; eta çougneç çauriez berez sendoturic içañ beituçirade.

²⁵ Ceren ardi herratiaç beçala cirauden, bena orai utçuliric cirade cien arimen Artçañ eta Aphezkuçiaç.

I 2,4 ciradelaric] A B *ciradetaric*; cf. Lç TB *çaretalaric* : Dv *zaretelarik*. I 2,11 bidejantac] A B *bidegantac*. || desiretaric] A *desiretarie*. I 2,12 gaizki eguile] A B *gaizki eguite*. I 2,13 arren] A *arren*. I 2,14 diener] A B *dienec*; cf. TB *direnei* : Ost Sacy Mart *à ceux qui*. I 2,15 boronthatia] A *horonthatia*. I 2,18 diener] A B *ciener*; cf. TB *direnei* : Ost Sacy Mart *à ceux qui*.

III CAPITULIA

¹ Emaztiaç ere içañ bite sousmis beren senharrer, amorecatiaç ere, balinbada çoumbait elhiaç obeditçen eztenic, bere emazten bici hounac irabaz ditçañ elhia gabe,

² ikhousteç cien counduta houn eta errespetouça Jincouaren creintan.

³ Eta cien ornamentiaç eztadila içañ campoticoua, noula bilhouen trenadura, urheriaç edo arropen edertarçuna,

⁴ bena cien ornamentiaç içañ bite bihotçen barnen, erran nahi beita, ezpiritu ezti eta trankil bat, çougn precio handitacoua beita Jincouaren aituçian,

⁵ çeren hola ornatçen beituçen beste orduç emazte saintiaç, Jincouatan esparantça cienac, beren senharrer sousmis egoitez;

⁶ hala noula Sara, çougneç obeditçen beituçian Abrahamaç, deituçen cialaric bere Jauna, çougneç alhabac beituçirade ountxa eguiten ducielaric, nahibada eztuçien deusen ere creintaric.

²⁴ *khurutchèn gagna*: adlatibozko forma da. Bestalde, Ürrütik Sacyrekin eta Duvoisinekin bat egiten du, nahiz eta ez dirudien kapitainaren bertsioetik edaten duen; cf. *sur la croix* S; *sur le bois* Ost, Mart & LSG; *çur gainea* Lç; *gurutzearen gainera* Dv; *çuraren gainerat* TB.

²⁵ *cirauden*: ‘zineten’. Ikus *ezpeituçiauden* I 2,10 eta bertako oharra; ikus, halaber, *beituçinaude* I 2,12.

¹ *içañ bite*: lehen lau bertsetetan soilik Segondek erabiltzen du 2. pertsona; gainerako bertsioek 3. pertsona ematen dute. 1873ko edizioan Ürrütik *içañ bite* eman arren, berehala 2. pertsonara aldatzen da; 1887ko zuzentzaileak kontsistentziaç erabiltzen du 2. pertsona.

¹ *sousmis*: ikus *soumis* I 2,13 eta bertako oharra.

² *Jincouaren creintan*: ikus *creintan* I 1,17 eta bertako oharra.

³ *trenadura*: «trenzado». OEhk etsenplu hau baizik ez du bildu (s.v.). Gainerakoan, cf. *izurdura* Lç He, *kizkurdura* TB, *kopeta* Ker, *orrazketa* IB. Halaber, Zuberoan *trenatü* aditza ere lekukotua da: Tt *Onsa* 110 eta, OEhk oraino ez badu ere, Egiategik ere badarabil 1782ko liburuan.

⁴ *precio handitacoua*: cf. *çoina baita precio handitacoa Jaincoaren aituçinean* TB vs. *cein baita Iaincoaren aituçinean precio* Lç. Bestenaz, itzulpenaren ondorioa dateke: *qui est d'un grand prix devant Dieu* Ost Mart. Erran-nahi, beraz, Zuberoako tradizioan *khoste izan* lekukotu da, bakanki ere: *Ni beçeïnbeste cieç / Gincouari khoste cirie* SteEli 216.

⁷ Eta ciec, senharrac, cien aldetic, goberna citaie çuhurki cien emazteki, ountci flakiago bateki beçala errespetu ekhartz, pharte dielacoz ciek bicia emaiten dian gracion, amorecatic eztadin içan traburic cien othoitcetan.

⁸ Azkenian, içan citaie oro sendimentu batetaco, compasionez betheric bata bestiaren, algar maithatcen ducielaric anaie beçala; içan citaie misericordious eta ezti.

⁹ Ez utçul ihouri ere gaizki gaizkiaren, ez eskernio eskerniouaren, bena utçul eçacie lehenago benediccione, ceren hartara deithuric beircirade, amorecatic errecebi deçacien benediccionia.

¹⁰ Ceren nourbaitec maite badu bere bicia eta nahi badu bere egunac irous ikhousi, beguira beça bere mihia gaizkitic, eta bere ezpagnac falxukeria orotatic;

¹¹ utçul bedi gaizkitic, eta eguin ountxa; tcherkha beça bakia eta jarraiki deçala.

¹² Ceren Jaunaren beguiac justouen gagnen dira eta haren beharriac beha dira haien othoitcer; bena Jaunaren aitcinia, gaizkia eguiten direnen countre da.

¹³ Eta nour da gaizki eguinen deiciena, houn denaren imitaçale bacirade?

¹⁴ Bardin soffritcen baducie cerbait justiciaren, ountxa irous cirade; bena etcitaia lotxa haien menaciez, ez içan troublaturic,

¹⁵ bena santifica eçacie goure Jinco Jauna cien bihotcetan, eta içan citaie bethi prest arrapostu emaiteco eztiki eta errespectureki cien beithan den esparantçaz arrazou galthatcen deiciener,

⁸ *anaie*: Ürrütiren zubereran *anaie* da mugagabearen forma; cf. *anaia* I 2,17 & II 1,10; *anaiaz* I 5,12 vs. *anaie* I 3,8; I 5,9 & II 3,15; *anayeti* I 1,22 eta *anaietiarra* II 1,7. *OEH*ren arabera, «La forma *anaie*, atestiguada ya en documentos medievales, aparece en Leizarraga (cf. además *anaietu* en Dechepare) y en textos suletinos, así como en algunos bajo-navarros, alto-navarros y vizcaínos [...]; se encuentra también en alguna ocasión en autores guipuzcoanos [...]. Entre los suletinos las formas determinadas son *anaia*, *anaiak* [...] o *anayia*, *anayiak*».

⁸ *misericordious*: *OEH*k (s.v. MISERIKORDIOSO) ondoko testuetan kokatzen du aldaera hau: *Xarlem* 691, *UskLiB* 99 eta *PierKat* 46.

⁹ *gaizki gaizkiaren, ez eskernio eskerniouaren*: ohart bedi genitiboaren morfema soilaren erabilpenaz kausaren eta benefakzioaren adierazteko; cf. *Gaitza gaitzagatic* [...] *iniuria iniuriagatic* Lç; *gaizqui gaizquiarentçat, ez escarnioa escarnioarentçat* TB; *Gaizkia gaizkiaren ez bihurtuz, ez-eta ahapaldia ahapaldiaren* Dv; *mal pour mal, ni injure pour injure* Ost; *mal pour mal, ni outrage pour outrage* Sacy Mart.

¹² *aitcinia*: ‘bisaia, begitartea’; cf. *aitcinea* TB, *bekhurundea* Dv, *sa face* Sacy, *la face* Mart. *OEH*k (s.v. AITZINE) «façade», «parte delantera» erran-nahiak bildu ditu.

¹⁴ *bardin*: ‘baldin’. Testuan gaindi Ürrütik bitan erabiltzen du *bardin*, eta behin ere ez *baldin*; cf. *bardin justoua nekez salbaturic bada* I 4,8. 1887ko edizioak bietan ematen du *baldin*. Bestenaz, *Ebanjelio Saintian* badira lau *bardin* vs. *baldin* bakarra. Ürrütiren testuez landara Ekialdeko mintzoetan ez da, guk dakigula, *bardin* aldaera lekukotu; *OEH*k (s.v. BALDIN) Mendebaleko tradizioan kokatzen du: Lazarraga, Barrutia eta *msOñ*.

¹⁴ *justiciaren*: hemen genitiboak balio kausala adierazten du; cf. *suffritzen baduque vngui eguinagatic* Lç, *pairatcen baduque yusticiarentçat* TB, *zuzembidearen gatic zerbait jafaiten baduzue ere* Dv, *si* [...] *vous souffrez pour la justice* Ost Sacy, *si* [...] *vous souffrez quelque chose pour la justice* Mart. Ürrütiren zubereran kausalaren eta benefaktiboaren markak nolabait hautazkoak dira; cf. *Ceren Jesus-Christec soffritu du bekhatiarentaco, justouac injoustouentaco* I 3,18.

¹⁶ ukhenez concientcia houn bat, amorecatic Jesus-Christen beithan ducien counduta houna coundenatcen direnac, confus ičan ditian, gaizki mintçatcen direlacoç cien countre, gaizki eguile baciraude beçala.

¹⁷ Ceren hobiago da soffri deçacien ountxa eguitiareki, hala bada Jincouaren boronthatia, gaizki eguitiareki beno.

¹⁸ Ceren Jesus-Christec soffritu du bekhatiarentaco, justouac injustouentaco, goure eramaiteco Jincouari; hil ičanéz araguiian, bena arraphizturic ezpiritiaz,

¹⁹ çougntçaz ere jouanic, pheredicatu beitu presounteguian etchekiric ciren ezpiritier,

²⁰ çougñ beste orduz sinhestegabe ičan beirciren Noeren demboran, Jincouaren pacentciac egurukitcen çutianian, arkha eguiten cen artian; çougñtan gente guti bat, erran nahi da çortci persouna ičan beirciren salbaturic houraren gagnen.

²¹ Çougñ salbatcen gutian batheyaren figura beita orai, erran nahi da batheyu: ez khorpitzeco cikhinac chahatcen dutiana, bena concientcia houn eta chahu baten hitzemanéz Jincouaren aitcinian, Jesus-Christen arraphiztiaz,

²² çougñec hiltcia destruituric amorecatic ukhen deçagun bicitce eternalaren primantça, igaranic celialat, Jincouaren eskugnian beita, eta çougñi ainguriac, indarrac eta photeriac bere peco betçaitço.

I 3,1 bite] A citaie; cf. Lç *diraden* : TB *bite* : Dv *ekhar biozote* : Ost Sacy Mart *soient* : LSG *soyez*. Ikus azalpenezko oharra. || sousmis] B *soumis*. **I 3,5** saintiac] B *saintia*. || sousmis] B *soumis*. **I 3,7** pharte] A *pharie*. **I 3,9** gaizki] B *gaiski*. **I 3,12** countre da] A B *countre dira*; cf. Lç *launaren beguithartea da gaizquiac eguiten dituztenén gainean* : TB *contra da* : Dv *Jaunaren bekhurundea landatua dago gaizkia egiten dutenen gainera* : Ost *sa face est contre...* : Mart *la face du Seigneur est contre...* **I 3,14** bardin] B *baldin*. **I 3,19** beitu] A *beito* B *beita*; cf. Lç *baitraue* : TB *baitu* : Mart *il a prêché*. **I 3,21** hitzemanéz] B *hizemanéz*. **I 3,22** hiltcia] B *hiltcio*. || betçaitço] A B *betçitçaitço*; cf. Lç *baitzaitza* : TB *baitçitçayo* : Dv *baititu* : Ost *auquel [...] sont assujettis* : Sacy *les anges, les dominations et les puissances lui étant assujetties* : Mart *auquel sont assujettis*.

IV CAPITULIA

¹ Jesus-Christec gouretaco araguiian soffritu dianaz gueroç, ciec ere arma citaie phentxamentu hounéz: nour ere hilic beita araguiaren bekhatiari, eztela haboro bekhatian bici,

¹⁶ *baciraude*: ‘bazinate’; cf. *ezpeitciauden* ‘ez baitzineten’ I 2,10 eta bertako oharra.

²² *betçaitço*: 1873ko zein 1887ko argitaraldietan Ürrütik *betçitçaitço* ematen du, batuaeren ‘baitzaizkio’ zentzuaz. Gainerako bertsio guztietan pluraleko 3. pertsonaren absolutiboa erabilia da, eta frantsesezko itzulpenek interpretazio hori bermatzen dute; cf. *baitzaitza* Lç, *baitçitçayo* TB, *baititu* Dv, *auquel [...] sont assujettis* Ost, *lui étant assujetties* Sacy, *auquel sont assujettis* Mart. Bere beste itzulpenean Ürrütik iraganaldiko *zitçaitzon* ‘zitçaitzion’ adizkia erabiltzen du: *jarraiki citçaitçon Jesusi* (EvS 1,37) & *Jesusec eçagaturic jin behar citçaitçola hartcera* (EvS 6,15). Ediziozile honen hipotesian, Ürrütik TBren *baitçitçayo* ‘baitzaizkio’ begien bistan izaiteak eragin duke halako nahastekamendua, eta horregatik *betçitçaitço* → *betçaitço* zuzentzea ebatzi du. Bestalde, zuberera historikoan orainaldiko *zitçaitzo* adizkia atzeman da, ‘zu hari zatçaitzio’ balioaz: *desiragarri citçaitçona* (Mst IV 11,1) & *ezpaitçaitço belharikatuturic pharkamentusketcen* (SteEli 651).

² amorecatic bicitce hountan orotan den demboran, eztadin haboro bici guiçonaren passionen arabera, bena bai Jincouaren boronthatiaren arabera.

³ Ceren aski ičan behar çauku gentilen boronthatia complituz, ignorant bici guinen demboran, emaiten guinenian desounestate orori, ordikeriari, sobera janari eta edanari, eta Jinco falxien cerbutchatcen.

⁴ Hartacoz, estonaturic dira eta gaizki mintço cietçaz, etciradelacoz jouaiten haieki nahaskerietarat.

⁵ Bena khountu errendatuco die bicien eta hilen jujatceco prest denari,

⁶ ceren hortacoz ere berri houna anontçaturic ičan da hiler, amorecatic jujaturic ičan ditian araguiian guiçonaren arabera, eta bici ditian Ezpiritian Jincouaren arabera.

⁷ Ceren gaiça ororen akhabantça huillan da, çuhur ičan citaie, eta usu othoitcetan.

⁸ Bena ororen gagnetik, ukhen eçacie cien artian amorio handi bat, ceren amoriouac thapatuco du bekhatu hanitx.

⁹ Ičan citaie ostatu-emaile bata bestiari, murmuraric gabe;

¹⁰ bakhotcha, errecebitu dian dohaingnaren arabera, eman bedi besteren cerbutchuco, Jincouaren gracia diferenten emaile beçala.

¹¹ Nourbait mintço bada, mintça bedi Jincouaren elhen anontçaçale beçala. Nourbaitec exersatcen badu ministerio çoumbait, exersa beça Jincouac eman deion ahalaaren arabera, amorecatic gaiça orotan Jincoua ičan dadin glorificaturic Jesus-Christez, çougñenac beitira gloria eta indarra bethierecoz. Hala biz.

³ *ignorant*: 1873 nahiz 1887ko edizioetan *ignorant* irakurtzen da. Ez da aise azaltzen, gainerako bertsioetan *iragan demboraren* ideia baitatza. Aldiz, *ignorant* → *igaran* zuzendurik ere, perpausak ez luke zentzurik. Ene iduriko, hemen Ana Ürrütik libertatez itzuli du; hortaz, *ignorant* → *ignorant* editatzea hobetsi da. Cf. *gure vicico dembora iraganean* Lç, *gure iragan bicico demboran* TB, *iragan dembora* Dv, *dans le temps passé* Ost, *dans le temps de votre première vie* Sacy, *durant le temps de notre vie passée* Mart, *dans le temps passé* LSG.

⁴ Ürrütik sinpleago errendatzen du bertset honen bigarren erdia; cf. *dissolutionezco insolentia berera hequin laster eguiten eztuquenean, çuec gaitzerraiten çaitutzela* Lç; *ez çaretelacotz lastercatcen hequin isurtce berean nahasqueriarat, eta beheratcen çaitutzete* TB; *zeren ez duzen hekiekin itsuseria beretara laster eguiten, eta ahapaldika hari dire* Dv; *que vous ne couriez pas avec eux dans le même débordement à la dissolution, et ils vous en blâment* Ost; *que vous ne couriez plus avec eux, comme vous faisiez, à ces débordements de débauche et d'intempérance, et ils prennent de là sujet de vous charger d'exécutions* Sacy; *ils vous blâment de ce que vous ne courez pas avec eux dans un même débordement de dissolution* Mart; *que vous ne vous précipitez pas avec eux dans le même débordement de débauche* LSG.

⁹ *bata bestiari*: Ürrütiri baliatzen zaion egitura elkarkaria ez da, antza, itzulpenaren ondorio; cf. *Çareten* elkarren ostatz *recebiçale* Lç, *Ičan çaitetze ostatu-emaile* elgarren alderat TB, *Erasiarik gabe izan zaitezte* elkarren alderat *ostatu emaile* Dv, *Exercez l'hospitalité* les uns envers les autres Ost, *Exercez entre vous l'hospitalité* Sacy, *Soyez hospitaliers* les uns envers les autres Mart, *Exercez l'hospitalité* les uns envers les autres LSG.

¹⁰ *gracia diferenten*: itzulpenaren eragina sentitzen da; cf. *de bons dispensateurs des diverses grâces de Dieu* Ost, *de fidèles dispensateurs des différentes grâces de Dieu* Sacy, *bons dispensateurs de la différente grâce de Dieu* Mart. Euskaratzei dagokienez, TB da frantses formulatik hurbilen; cf. *anhitz aldezo gratiaren dispensaçale* Lç, *gracia diferenten menayant* TB, *asko moldetako grazien hedatzaile* Dv.

¹² Ene ountxa maitiac, etcitaiela estona nouiz ere labe baten barnian beçala ciradenian cien esprabiagatic, noula cerbait berriric heltcen betçaitcien beçala.

¹³ Bena pharteliant ciradelacoz Jesus-Christen soffrantchetan, boztario har eçacie, amorecatic ere haren gloriaren aguertçapenian, boztario citaien alagrantciareki.

¹⁴ Erraiten badeicie injurioric Jesus-Christen icenagatic, ountxa irous cirade, ceren eta Jincouaren gloriacoz ezpiritia egoiten beita cien gagen; eguia da hetçaz blasfematuric dela, bena glorificaturic dela cietçaz.

¹⁵ Cietaric batec ere ezteçala soffri guiçon ehaile edo kurious beçala, besteren eguitecouetan.

¹⁶ Bena khiristi beçala soffritcen badu, ezteçala hartçaz ahalkerik ukhen, bena glorifica beça Jincoua hartan.

¹⁷ Ceren ordu da jujamentia has dadin Jincouaren etchetic; eta hasten bada lehenic gutaric, cer içanen da Jincouaren evangeliouari obediten eztirenen acabantça?

¹⁸ Eta bardin justoua nekez salbaturic bada, noun aguertuco da gaistoua eta bekhatoria?

¹⁹ Jincouaren boronthatiaz soffritcen direnec ere, eguiten dienaz gueroz ountxa dena, gomenda ditcela beren arimac, creaçale fidelari beçala.

I 4,3 ignorant] A B *ignorant*. Cf. azalpenezko oharra. **I 4,4** nahaskerietarat] A B *nahaskertetarat*. **I 4,11** beira] A B *beitcira*. **I 4,12** barnian] A *barniau*. **I 4,13** soffrantchetan] A *soffrantchetau*. **I 4,14** Jesus-Christen] A *Jesus-Christe*. || ountxa] B *outxa*. **I 4,18** bardin] B *baldin*.

V CAPITULIA

¹ Othoitcen dutut cien artian diren artçaignac, ni ere artçaign beniz hourac beçala, eta Jesus-Christen soffrantchen jakile eta gloria aguertu behar dianaren phartheliant, eta erraiten deret:

² Bazca itçacie Jincouaren tropa confidaturic içan çaitcienac, haien coundutari kasu hartuz; ez borchatuz, bena boronthate houn Jincouaren arabera denaz; ez irabaci desounest batengati, bena amorio interesgabe den batez;

³ ez buruçagui içatez beçala Jaunaren eritagiaren gagen, bena halaco guisaz içan citaien moudela beçala tropari, berthute bihotcetic jiten den batez.

¹³ *aguertçapenian*: XIX. mendeko lapurterazko erlijio literaturan lekukotzen da *agertzapen*. *OEhk* hala TB itzulpen protestantetik nola Duvoisinin *Erromarrei* gutunetarik idoki ditu etsenpluak. Seguruenik, Ürrütik TB zuen eskuartean; cf. *haren loriaren aguertçapenean*, *bozcariot çaitetzen aleguerantciarequin*. Ürrütik sei aldiz erabiltzen du *-tzapen* eratorpenezko aglutinazioa: *haitçapenaren* II 1,10; *sartçapena* II 1,11; *galtçapen* II 2,6; *jintçapena* II 3,12 & *galtçapenaren* II 3,16. Markagarria da pasarte horietan guztietan Ürrütik TBko hautuekin bat egitea. Ikus *jintçapena* II 3,12 (← *ethortçapena* TB) eta bertako oharra.

¹⁸ *bardin*: ‘baldin’; cf. *bardin* I 3,4 eta ikus bertako oharra.

² *tropa confidaturic içan çaitcienac*: izen ondotikako erlatiboa, ‘konfidaturik izan zaizkizuen tropak’.

² *amorio interesgabe*: hemen Ürrüti Sacyren frantsesetik hurbilago; cf. *par une charité désintéressée* Sacy vs. *par affection* Ost, *par un principe d'affection* Mart, *gogo prest batez* Lç, *amodioz* TB.

⁴ Eta nouiz ere artçaignen Principia aguertuco beita, errecebituco ducie ecin galtcen ahal den gloriaren khoroua.

⁵ Ber guisan ciec, gente gaztiac, iğan citaie sousmis artçaigner, cien beithan eta bata bestiari humil iğanez; ceren Jincouac erresistatcen beitu urgullutxier, bena bere gracia emaiten du humiller.

⁶ Humilia citaie arren Jincouaren esku photerexiaren pian, amorecatie eraiki citcen dembora heltu datekienian,

⁷ haren beithan eçarriz cien phenac oro, ceren cietçaz soueign hartcen beitu.

⁸ Çuhur iğan citaie, eta kasu har, ceren debria, cien exaia, badabila cien ungurian lion bat orrouatuz beçala, tcherkhatuz çougn iretxico ahal dian.

⁹ Erresista iğacie arren egoitez azkarki fedian, jakinez ber soffrantchac complitcen direla cien anaie mundian direnetan.

¹⁰ Bena othoitcen dut gracia orotaco Jincoua, çougnec deithu beikutu bere gloria eternaliala Jesus-Christen, soffritu dukekienian dembora bouchi batez, perfecciona citcela, azcar citcela, eta eguin citcela fundamentu solido bat beçala.

¹¹ Hari iğan bedi gloria eta indarra bethierecoz. Amen.

¹² Izkiribatcen deiciet laburzki Silvein goure anaiaz, guiçon fidel bat beita, declaratcen eta segurtatcen deiciedalaric Jincouaren gracia, çougntan beiteirade, eguiatzcoua dela.

¹³ Babylonen den eliçac haitaturic beita ciec beçala, eta Marc ene semiac salutatcen çutie.

¹⁴ Algar saluta eçacie amoriozco pot batez. Bakia iğan bedi ciekî ororeki çougnac Jesus-Christen beithan beiteirade.

I 5,2 hartuz] A B *hartzet*. || borchatuz] A B *borchatez*. || interesgabe] A *interres gabe*. **I 5,5** sousmis] B *soumis*. **I 5,9** azkarki] B *askarki*. **I 5,10** perfecciona] A B *perfeccione*; cf. Lç *compli* [...] *çaitzatela* : TB *eguin caitçatela compliac* : Dv *eginen zaituzte perfet* : Ost Sacy *il vous perfectionne* : Mart *vous rende accomplis*.

⁴ Hemen ere Ürrütik Sacy segitzen duke; cf. *le Prince des pasteurs Sacy vs. le souverain Pasteur Ost Mart Sacy, Pastor principal* Lç, *Artçain Soberanoa* TB eta *artzainen buruzagia* Dv.

⁸ *lion*: Maurice Harrietek lapurteran, Garaziko behe-nafarreran eta zubereran kokatzen ditu *lion* & *lehuñ* aldaerak (*apud OEH* s.v. *LEHOI*); *OEHk* ez du adibiderik jaso. Zuberoko tradizioan *lehû* nagusi da, Tartasen *lehoiñ* salbuespen delarik; bestenaz Gèzek (1873) *leho* ematen du. Hemen *lion* ez da lapurterazko itzulpenen eraginaz azaltzen; cf. *lehoin marrumalaribat* Lç, *lehoin bat* TB, *lehoina* Dv.

⁹ *cien anaie mundian direnetan*: erlatibo postnominala, euskara batuan ‘munduan diren zuen anaiengan’; gogora bedi zubereraz *anaie* dela mugagabearen forma; ikus I 3,8ko oharra. Bertset honetan TB eta Ürrüti Martinen bertsiotik hurbilago dira: *sachant que les mêmes souffrances s'accomplissent en la compagnie de vos frères qui sont dans le monde* Mart & *yaquinez sofrantcha berac complitcen direla çuen anaya gucietan, çoinac munduan baitire* TB. Gainerako frantses bertsioetan, aldiz, bestelako sintaxia kausitzen da: *sachant que vos frères, qui sont répandus dans le monde, souffrent les mêmes afflictions que vous* Ost Sacy, *sachant que les mêmes souffrances sont imposées à vos frères dans le monde* LSG.

¹⁰ *Jesus-Christen*: inesiboan bide da. Cf. *Iesus Christ Iaunean* Lç, *Jesus-Christo baithan* TB, *en Jésus-Christ* Ost Sacy Mart. Beste aukera litzateke *beithan* postposizioa ments ledin; cf. *çougnac Jesus-Christen beithan beiteirade* I 5,14.

Jondane Phetiriren bigarren epitria

I CAPITULIA

¹ Simon Pierra, Jesus-Christen cerbutchari eta apostoliac, fede precio handizco bat guc beçala optenitu diener, goure Jinco eta goure salbaçaliaren justiciaz:

² Gracia eta bakia iça bite cietan bethi handizkiago, Jincouaren eta Jesus-Christ goure Jaunaren eçagutcian!

³ Haren Jincozco photeriac eman deizkunaz gueroz biciari eta Jincotiartarçunari deitçonac oro, eçagutarazten deikularic deithu gutiana bere gloriaz eta bere berthutiaz,

⁴ çougntçaz emanic betçaizku hitzeman gracia handi eta preciousac, amorecatic hartçaz pharteliant eguinic iça citaien natura Jincozcouan, mundian erregnatcen den gaistokeria galgarritic ezcapiroc.

⁵ Ciec ere, cien aldetic ekhartan ducielaric cien souegnac oro, eratcheki eçacie cien fediar berthutia, berthutiari jakitatia,

⁶ jakitatiari çuhurtarçuna, çuhurtarçunari pacentcia, pacentciari pietatia,

⁷ pietatiari amorio anaetiarra, eta amorio anaetiarrari caritatia.

⁸ Ceren gracia horic cien beithan badira, eta handitcen bethi haboro, etçutie utcico auher ez frutagabe Jesus-Christ goure Jaunaren eçagutcian.

⁹ Bena çougntan ere gaiça horic ezpeitira edireiten, utxu da, eta eztu ikhousten hurruntic, ahatez bere bekhatu çaharren chahatcia.

¹ *optenitu*: ikus *opteni* I 1,5 eta bertako oharra.

¹ *diener*: frantses bertsio gehienek 2. pertsona ematen dute, baina ez Sacyrenak; cf. à ceux qui ont reçu comme nous le précieux don de la foi Sacy; à vous qui avez eu en partage avec nous une foi de même prix Ost; à vous qui avez obtenu une foi de pareil prix avec nous Mart. Euskaratzeen artean kontrakoa gertatzen da, 2. pertsona soilik TBn atzematen baita: *gurequin obtenitu* duteney Lç; çuei *ardiexi duçueney fede bat precio berecoa gurequin* TB; eta *guk bezala bardin fedea izan* dutenei Dv.

³ *deitçonac*: batuz ‘dizkionak’; ABS-DAT komunztadura igurikatzen da (*çaitçonac*), edo bederen aditz iragangaitza. TBk ere, itxuraz, gisa honetako ergatiboduna ematen du: *eman daucunaz gueroz biciari eta Jaincotiartassunari dazozcan guciac*; halere, baliteke *egonen* adizkia izatea (← *dagozkan* ‘dagozkion’; ikus Ithurry 1895: 184). Gainerako euskaratzeek aditz iragangaitza dakarte: *diraden* Lç, *dagozkioten* Dv.

⁴ *ezcapiroc*: ‘eskapaturik’, hots, zubereraren *ezkapi* partizipioaren erresultatibozko forma, Zuberoan XVIII. mendetik honat azaleratuz joan den *-i* bukaerako partizipioen sail berriaren adibidea baita; ikus Padilla-Moyano (2018).

⁵ *eratcheki eçacie*: XVIII. mendetik honat, Akitaniako euskalkietan *-ki* multzoko aditzen aditzoinek *-i* galtzeko joera erakusten dute (ikus Padilla-Moyano 2017: § IV 2.3). Hemen, beraz, Ürrüti gordetzaila da, *eratxeki* aditzaren aditzoinaren forma zaharra erabiltzen baitu —halere, *etcheç eçacie* II 3,15—; ohart bedi TBk molde berriko aditzoina ematen duela: *eratchic eçaçue*.

⁷ *anaetiarra*: cf. *anaie* I 3,18 eta bertako oharra.

¹⁰ Hortacoz ciec, ene anaiac, souegn handireki eman citaie cien deitciaren eta haitçapenaren segurtatcera, ceren hori egunez etcirade cordocatuco secula.

¹¹ Ceren moien hortçaz, Jesus-Christ goure Jaun eta salbaçaliaren erresouma eternelezcø sartçapena abundantki emanic içanen çaiçie.

¹² Hortacoz, souegn hartuco dut cier bethi arraorhitarazteco gaiça horic, nahibada deja jakitattia baducien eta segurtaturic ciraden eguia erraiten deiciedanian.

¹³ Bena uduri çait mundu hountan niçano, campo batetan beçala, justo dela iratçaraz citcedan ene abertimentiez,

¹⁴ ceren jakinic niz dembora laburren barnen behar dudala utci khorpitz hau, Jesus-Christ goure Jaunac erran beçala.

¹⁵ Bena souegn hartuco dut, ni bici hountaric phartitu niçatekienian, eçar ahal ditçatcien bethi gaiça horic cien memoriouan.

¹⁶ Ceren ezteiciegu eçaguteraci Jesus-Christ goure Jaunaren photeria eta jitia elhe amusementuz, bena bai haren majestatia ikhousiric beçala goure beguiez,

¹⁷ ceren errecebitu cian Jinco bere Aitaganic ouhoure eta gloria, nouiz ere holaco botz bat jiten celaric odei argui eta esclatous baten erditic: «Hoi da ene seme ountxa maitia, çougntan eçarri beitut ene amoria oro. Beha eçacie».

¹⁸ Eta guihauc entçun gunian celutic jiten cen botz houra, hareki guinelaric mendi saintiaren gagen.

¹⁰ *haitçapenaren*: ‘hautuaren, hautapenaren’; cf. *hautçapenaren azcartcera* TB. *OEhk* (s.v. HAUTZAPEN) biltzen duen etsenplu bakarra TBkoa da, baina beste pasarte batekoa: *Graziaren hautzapenaren arabera* Rom 11, 5. Ikus *aguertçapenian* I 4,13 eta bertako oharra.

¹¹ *sartçapena*: cf. TB *sartçapena*; ikus *aguertçapenian* I 4,13 eta bertako oharra.

¹⁴ *dembora laburren barnen*: inesibo arkaikoa mugagabea.

¹⁶ *elhe amusementuz*: ABUSAMENDU «diversión» sarreran *OEhk* ez du aldaera hau jaso; bai, aldiz, *agusamendu* eta *ahusamendu*. Bestenaz, *amusatu* lekukotzen du (s.v. ABUSATU 2 «Passer, perdre le temps à des choses inutiles, amuser quelqu'un»). Cf. *en suivant des fables composées avec artifice* Ost, *en suivant des fables et des fictions ingénieuses* Sacy, *en suivant des fables artificieusement composées* Mart, *fable artz desguisatuey iarreiquiz* Lç, *seguituz elhe amarrusuac* TB, *khondera eder zenbait jarraikiz* Dv.

¹⁷ *esclatous*: *OEhk* ez du *esklatu* bildu; bai, ordea, *ESKLAT* «éclat» (Gèze) eta *ESKLATAIA*, *Ixasoco nabigacionecoa* liburuaren pasarte batean lekukotua, non semantika ez baita argi: «oleaje (?)». Seguruenik, *Ürrütik esklatu* ‘éclatant’ adjektiboa erabili du Sacyren *éclat* nolabait egokituz; okzitanieraren hiztegiatan *ESCLAT*, *ESCLATAR*, *ESCLATANT* & *ESCLATAMENT* sarrerak atzeman daitezke —Palayrean *ESCLATÀ*, *ESCLATÀN/ESCLATANTE*, *ESCLATADE* & *ESCLATAMÉN*—, baina ez *esklatu*.

Bestenaz, bertset honetan soilik Sacyk eta Duvoisinek erabiltzen dute hodeiaren irudia, Pedroren epistolen gainerako itzulpenetan *gloire magnifique* baten ideia gailentzen delarik: *hunelaco voz bat hari igorri içanic gloria magnificotic* Lç; *boz hau zucendua içan çayonean loria handigoitiaren erditic* TB; argizko hedoietik *jautsi zenean hitz hau* Dv; *cette voix lui fut adressée* du milieu de la gloire magnifique Ost; *lorsque*, de cette nuée où la gloire de Dieu paraissait avec tant d'éclat, on entendit cette voix Sacy; *quand une telle voix lui fut adressée* du milieu de la gloire magnifique Mart; eta *quand la gloire magnifique lui fit entendre une voix qui disait* LSG. Azkenean, guztiz markagarria da TBk Larramendiren *handigoiti* «magnifico» erabiltzea.

¹⁹ Profeten elhia ere badugu, çougntan segurtantcha azkar beita, eta çougni ountxa eguiten beituçie jarraikitcia lampa lekhu ulhun batetan arguitcen dianari beçala, eguna arguitcen has artino, eta goiçanco içarra jeiki artino cien bihotcetan.

²⁰ Contxideratuz lehenic hau: izkiribuco profecietaric bat ere eztela esplotacñen interpretacione particular batez,

²¹ ceren profecia beste orduz etçaiku ekharriric ičan guiçonon boronthatiaz, bena Jincouaren guiçon saintiac, Espiritu Saintiaz phousaturic, mintçatu dira.

II 1,2 bite] A *bedi*; cf. Lç *daquiçuela* : TB *ičan çaitçuela* : Dv *ditezela* : Ost *Mart vous soient* : Sacy *croisse*. II 1,3 deitçonac] A B *deitçouac*. II 1,8 etçutic] A *eztçutic*. II 1,9 ezpeitira] B *espeitira*. II 1,11 sartçapena] A B *sortçapena*; cf. Lç *sartcea* : TB *sortçapena* : Dv *sartce* : Ost *l'entrée* : S *d'entrer*. II 1,12 erraiten] A *eraiten*. II 1,14 laburren] A *laburen*. II 1,15 ditçatcien] A *ditçatciren*. || cien] A *ciren*. II 1,18 guinelaric] A B *gunelaric*. II 1,19 goiçanco] B *goiçano*. || cien] A *ciren*.

II CAPITULIA

¹ Bena noula ičan beitura profeta faltxiac populiaren artian, içanen dira cien artian ere erakasle faltxiac, gordeca sararacico beituçie doctrina galgariac, eta errenontciaturic Jaunari, çougñec arraerosi beituçie, erakharacico beituçie beren gagna galtce laster bat.

² Eta hanitxec jarraikico dutie hayen doctrina galgariac, eta hayen causaz eguiaren bidia blasfematuric içanen da.

³ Ceren avariciac eta bere elhe faltxiez, eguinen dire cien arimez trafic bat; bena hayen condenacionia, çougñ aspaldian decidaturic beita, eztu berantcen, eta hayen punicioniaren eskia ezta logaletcen.

⁴ Ceren Jincouac ezpadutu counserbatu bekhatu eguin diren ainguriac, bena ourthoukiric lecialat, khatia ulhumpecouez cargaturic, tourmentaturic eta beguiraturic içateco jujamentuco egunialano;

⁵ eta ezpadu counserbatu leheneco mundia, bena ezpadu salbatu çazpi persouna baicic, Noé bera çortciguerren, çougñ beituçie justiciaren pheredicaçalia, igorri cianian uhaldia sinhestegabe cen mundun gagna;

⁶ eta condenatu badutu Sodomaco eta Gomorrhaco hiriac galtçapen oso batetara, ezdeustuz, eta eçartez exemplu bat beçala sinhestegabe bicico ciener;

⁷ eta libratu badu Lot justoua, çougñec hanitx soffritu beituçie ikhoustez hayen bici gaistoua.

⁸ Ceren justo harec, çougñ hayen artian egoiten beituçie, hourac ikhousiz eta entçutez, aflijatcen cian egun oroz bere arima justoua, hayen eguitate gaistouen causaz.

³ *decidaturic*: cf. *bainan heyen aspaldian decidatu condenacioneac ez du luçatcen* TB.

⁸ *aflijatcen*: OEhk (s.v. AFLIJITU) -*atu* itxurako aldaeraren adibide bakarra jasotzen du, -*itu* itxurarekin batean: *Gauza kruela da aflijatzea aflijitu dena* Volt 234. Nola esplika Voltairek *aflijatzea* & *aflijitu* para perpaus berean ematea?

⁹ Hortaric agueri da Jaunac badakiala tentacionetic beguiratcen houra ouhouratcen dienac, eta erreserbatcen dutu injoustouac punituric içateco jujamentiaren egunian,

¹⁰ berheceki bere desir theien sastifatceco, arraguiaren imbidia jarraikitcen dutianac, meprisatcen beittutie photeriac, jente atrebitiac, urgulutxiac, beren burien amorioz betheric, eta lotxa eztirenac dignitatez gaizki mintçaturic,

¹¹ nahibada ainguriac, hourac beno handiago diren indarrez eta photerez, ezpeiture pronontçatcen injurioric hayen countre Jaunaren aitecinian.

¹² Bena horic, arrazougabe diren cabaliac beçala, çougneç ezpeiture jarraikitcen beren sendimentiac baicic, eta çougneç eguinic beittira harturic eta galduric içateco, gaizki mintçatuz entçuten eta enthelegatcen eztiren gaicez, fondituco dira beren gaistokeriez,

¹³ errecebitcen dielatic beren gaiztokerien phakia. Maite dire egun oroz plazer goçouetan içatia. Cien artian thona eta theiukeria dira; hayen plazera da cien inganancia cieki eguiten dutien amoriozco apaidietan.

¹⁴ Hayen beguiac adulterioz betheric dira; eztira secula bekhatu eguitetic baratcen; berenganatcen dutie arima ahin eta segurtaturic eztirenac; bihotçac exersaturic dutie luxurian eta avarician; maladicionezco haurrac dira,

⁹ Bertset honetan Ürrüti Sacyri darraio; cf. *Le Seigneur saura Ost, il paraît par là que le Seigneur sait Sacy, le Seigneur sait Mart, Badaqui Jaunac Lç, Jainkoak badaki Dv, Jaunac badaqui TB*. Aldiz, *ouhouratu* aditzaren hautuan Ostervaldekin bat egiten du (*ceux qui l'honorent*), eta ez Sacyrekin (*ceux qui le craignent*).

⁹ *injoustouac*: bigarren aldiz bokalismo horrekin; ikus I 2,19 eta bertako oharra.

¹⁰ *sastifatceco*: ez dateke huts. SATISFATU & SATISFAZIO sarreretan *OEHk* ez du *sastifa-* itxurako aldaerarik jasotzen. Halere, Zuberoan testu batzuek hala lekukotzen dute: *Charlemagne (sastifatceco 1081)*, Inchauspere Atharratzeko *Erakhaspena (sastifatzionia baina satisfatzionerik)*, *Mysterio (sastifacione 9 & 23, sastifacionia 23)* eta Hauzen 1899an datatua den *Catuchuma españoul* eskuizkribua (*sastifatiac 66 baina satisfazione 61*).

¹³ *theiukeria*: 'zikinkeria'. 1873ko zein 1887ko edizioek *theinkeria* dakarte. Cf. *desir theien* II 2,10. *OEHk* *thein-* aldaera grafikoak bildu ditu, galdera ikurraz: (1) *tein* (s.v. TEIU; «Posiblement proceda de un error o mala lectura por parte de Lécluse (de quien quizás lo toma Hiribarren), por *teiu*»); (2) *teinkeria* (s.v. TEIUKERIA; «Tal vez errata o mala lectura de *theiuk*»); (3) *teindu* (s.v. TEIUTU; «Tal vez errata o mala lectura de *theiut*»). *OEHk* iradokitzen duen bezala, beharbada sudurkaridun hiru aldaera horiek euskal lexikografian sartu den mamu baten manifestazio huts izan litezke. Horrezaz gain, testu honetan —bereziki 1873ko edizioan— ez da falta <u> tipoaren ifrentzukatzeak <n> ekarri dueneko adibiderik; cf. <barniau> I 4,12, <soffrantchetau> I 4,13, <counserbatn> II 2,5 eta <Jannaren> II 2,11 (← *barnian, soffrantchetan, counserbatu* eta *Jaunaren*, hurrenez hurren).

¹³ *dira*: 1873ko zein 1887ko aleek ments dute kopularen adizkia. Baliteke Ürrütiren estiloan sar ledin, baina zentzua hobeki konprenitzen da bertsio gehienek dakarten aditza emanik; cf. *thatchác eta maculác Lç; Çuen artean tatchac eta liquisdurac dire TB; ce sont des taches et des souillures parmi vous Ost; ils sont la honte et l'opprobre de la religion Sacy; eta Ce sont des taches et des souillures Mart*.

¹⁴ *ahin*: Zuberoan *arhin* aldaera osoarekin batera lekukotua. Dardarkarien lenizioaren ondorioz, ezagun dira *rh* > *h* bilakabidearen ondoriozko ahoskerak, etsenpluz *erhi* /'ehi/, *sorho* /'soho/, *berheiz* /be'hejs/.

¹⁵ çougneç, bide chuchena utciric, herratu beitiara, eta jarraiki beitiara Balaamen, Bosorren semiaren bidia, çougneç maitiagor beitiaren gaistakeriaren phakia, bena gastigaturic iñan cen bere injusticiagatic.

¹⁶ Ceren asto urruça bat, mintçaturic guiconqui botz batez, bararaci cian profetaren erhokeria.

¹⁷ Horic uthurri hour gabezcouac dira, eta odei aice unguratcen denac iharausiara, eta jente çogni ere ulhumpetaco ulhuna beguiraturic beçaiere eternitatecoz.

¹⁸ Ceren, etchekiz discours hanitx hantu eta banitatez bethiara, bereganatcen dutie, araguiaren nahikentiez eta beren likhistarçunez, barreiaduretan bici direnetaric eguiarzi apartatu cirenac;

¹⁹ hitzemaiten deielaric libertatia, nahibada berac gaiztokeriaren esclavo diren; çerene çougntçaz ere buruçaguituric iñan beitiara, hourac buruçaguitu denaren esclavo dira.

²⁰ Ceren, behin erretiratu ondouan munduco cikhintarçunetaria, Jesus-Christ goure Jaun eta salbaçaliaren eçagutciar, hetan trabatcen badira berriz eta buruçaguitcen batçaitce, hayen azken estatia lehena beno gaiztouago da.

²¹ Ceren hobe iñanen çerene ezipalie eçagutu Justiciaren bidia, eciez eçagutu ondouan utçultcia emanic iñan çeitcen manu saintietaria.

²² Bena erraiten dena eguiarzo erran comun batez heltu çaiere: «Tchakurra utçuli da goiticatu cianiala», eta «Ourde chahatu berria utçuli da sabeltcera lohialat».

II 2,1 cien] A çeren; cf. Lç TB Dv çuen. || beitiutic] A B beitiutic; cf. Lç baitituzte : TB dituztenac : Dv dituztenac : Ost Sacy Mart *qui introduiront*. **II 2,3** cien] A ciren. **II 2,4** ainguriara] A ainguriara. **II 2,5** counserbatu] A counserbatu. **II 2,6** Gomorrhaco] A Gomorrhaco. || ezdeustuz] A B ez deustaz. || bicico] A bicio. **II 2,9** dienara] A B dutiara; cf. TB *houra ohoratcen dutenac* : Ost *ceux qui l'honorent* : Sacy *ceux qui le craignent*. **II 2,11** Jaunaren] A B Jannaren. **II 2,12** cabaliara beçala] A cabal-liara beçala dira B cabal-liara beçala; cf. Lç *animal brutal bere sensualitateari darreitzanac beçala* : TB *arraçoinaz gabetu animaleac iduri dire* : Dv *adimendugabeko abere batzu iduri* : Ost *comme des bêtes destituées de raison* : Sacy *semblables à des animaux sans raison* : Mart *semblables à des bêtes brutes*. **II 2,13** cien] A ciren. || theiukeria] A B theinkeria; cf. *desir theien* II 2,10. || dira] A B om.; cf. Lç *thatchac eta maculac* : TB *tatchac eta liquisdurac dire* : Dv *beren atseginetan khutsapen eta likhiskeriaz bethetzen baitire* : Ost *ce sont des taches et des souillures* : Sacy *ils sont la honte et l'opprobre de la religion* : Mart *ce sont des taches et des souillures*. || cien] A ciren. || cieki] A cireki. **II 2,14** dutie] A dutic. **II 2,15** Balaamen] A Balaaman. **II 2,16** botz batez] B botz. || erhokeria] A erhokaria. **II 2,17** gabezcouac] A gabescouac. || jente] A jinte. **II 2,18** etchekiz] A etchekis. || likhistarçunez] A B likhitarçunez. **II 2,20** gaiztouago] A gaistouago.

¹⁶ Bertset honetan Ürrütik TB segitzen du: *Ecen asto urruça mutu batez mintçatuz guiconqui boz batez, bararaci çuen profetaren errhoqueria*.

¹⁷ *odei aice unguratcen denac iharausiara*: egungo batuaeren sintaxira ekarririk 'inguratzen den haizeak iharausi[tako] hodeiak'. Cf. *hodey haice buhumbaz erabiliara* Lç, *iscuidac higitu hedoyac* TB, *haize chirimolak derabilzkan lanho batzu* Dv.

²¹ *iñanen çerene*: 'izanen zitzaien'. Ürrütiren adizkeran sinkretismoak obratu dira hainbat norabidetan; cf. *Jesus jin çerene* ['zitzaien'] *ororene erdiala, eta erran çerene* ['zien'] EvS 20,19. Frantses bertsioek ere çerene 'zitzaien' irakurketa bermatzen dute; cf. *il leur eût mieux valu* Ost Mart, *il leur eût été meilleur* Sacy. Aldiz, euskarazko gainerako itzulpenek *edunen formarik dute: *hobe vkan çuqueiten iustitiazco bidea ez lutén eçagutu* Lç, *hobe iñanen çuten ez balute eçagutu* TB, *hobe zuketen ez balute zuzenbidea eçagutu* Dv.

II 2,22 Bena erraiten dena eguiazco erran comun batez, heltu çaie] B Bena heltu çaie erraiten dena eguiazco erran comun batez. || sabeltcera] A sabeltcera.

III CAPITULIA

¹ Ene ountxa maitiac, heben da izkiribatcen deiciedan biguerren letera, eta batan eta bestian iseiatcen niz ene abisez iratçaraztera ciec dutucien sendimentu chahiac;

² amorecatic orhit citaien lehenago propheta saintiez erranic ičan çaitcien elhez, eta gutaric errecebitu ducien manamentiez, çougnac salbaçale Jaunaren apostolu beikira.

³ Gaiça ororen gagnetico jakin eçacie, azken egunetan jinen direla trufaçaliac, biciz beren passionen arabera,

⁴ erraiten dielario: «Noun da haren jitiaren hitzemana? Ceren goure aitac hilez gueroz, gaiçac oro egoiten dira mundiaren hastian ičan diren beçala».

⁵ Ceren hau ignoratcen dire nahi direlaric: celiac beste orduz creaturico ičan direla Jincouaren elhiaz, hala noula lurra houretico elkhirico ičan beita, eta bethi houraren erdian beitaude.

⁶ Eta gaiça horietçaz ordunco mundia galdu cela, hourpeturico içanez uhaldizco hourez.

⁷ Bena oraico celiac eta lurra beguiraturico dira ber elhiaz, eta erreserbaturico dira suiaz errerico içateco jujamentuco egunian, eta guiçon bihotzgogorren ezdeustez.

⁸ Bena ciec, ene ountxa maitiac, ezteçaciela ignora hau, Jaunaren aitecinian egun bat milla ourthe beçala dela, eta milla ourthe egun bat beçala.

⁹ Jaunac eztu guibeltcen bere hitzemanaren complitcia, çoumbaitec ouste diren beçala badela guibelmentu, bena pacientciatxu da goure aldialat, ez nahiz ihour ere gal dadin, bena nahiz oro jin ditian dolumeniala.

¹⁰ Bena Jaunaren eguna jinen da ouhougna gaiçaz beçala, egun hartan celiac igaranen dira erauntxi ikharagarri baten herroxareki, eta gaiçac oro suiaren indarraz ezdeusturico içanen dira, eta lurra eta hartan diren obrac oro ossoki erreco dira.

¹¹ Gaiça horico oro ezdeusturico ičan behar direnaz gueroz, çougnac ičan behar ducie bicitce saintu batez eta cien obren jincotiartarçunaz

⁷ *ezdeustez*: «destrucción, aniquilamiento». *OEhk* (s.v. *EZDEUSTE*) TBren pasarte honexetako adibidea baizik ez du biltzen: *Yuiamenduko egunean eta gizon bihotzgogorren ez deustean*. Cf. *destruccionearen* Lç, *chahupeneko* Dv, *destruction* Ost M, *ruine* Sacy.

⁹ *guibelmentu*: gisa guztiz, Ürrütik TBko *gibelamendu* egokitu du, zubereraz *gibeltü* baita partizipioa, eta ez **gibelatü*.

¹⁰ *Bena*: 1873ko edizioak *Eta* dakar. Menturaz, 1873an Ürrütik hemen zehatz ez dezakegun iturria erabili zukeen, eta 1887koan zuzendu; cf. *Baina* Lç, *Bada* TB Dv, *Mais* Ost, *Or* Sacy Mart.

¹¹ *horico oro*: 1873ko nahiz 1887ko edizioetan *horico oroc* datza. *Oro* zenbatzailearen erabilpen honetan, sintagmaren bi osagaiek kasu-marka hartzen dutenez, ala *horico oro* absolutiboa, ala *hoyec oroc* ergatiboa behar luke. Perpausaren aditza —*direnaz*— *izanen* forma litzateke; halere, bokal arteko *r* hori hiperzuzenketaren isla ere izan liteke, eta orduan **edun*-en adizkia genuke. Dena den, Ürrütik bertset hau TBtik egokiturik, iragangaitzaren interpretazioa aski segurua da.

¹² egurukitzez, eta lehiatzez cien desirez, Jincouaren egunaren jintçapena, çougntan celiac garturic ezdeusturic içanen beitra, eta gaiçac oro hourturic suiaren indarratz!

¹³ Bena egurukitcen dutugu, haren hitzemanaren arabera, celu berriac eta lur berri bat, noun justicia egoiten beita.

¹⁴ Hortacoz, ene ountxa maitiac, gaiça horic egurukiz, eguin eçacie cien eguinahala, amorecatic Jesus-Christec ediren citcen chahu, thonaric gabe eta bakian.

¹⁵ Eta ethec eçacie Jaunaren pacentcia ciec salbatu nahi çutielaco proba bat beçala, Phaule goure anaie maitiac izkibatu deicien beçala, çuhurtce emanic içan çaionaren arabera,

¹⁶ bere letera orotan eguiten dian beçala, çougnetan mintça beita gaiça horietçaz, çougnetan artian beita nekez enthelegatcen direnac, ignorantec eta fermo eztirenec buhurtcen beitutie, beste izkiribiac buhurtcen dutien beçala, beren galtçapenaren.

¹⁷ Ciec arren, ene ountxa maitiac, dejadanic abertituric ciradenaz gueroz, abisa citaie, lotxaz jarraiki ditçatcien centçugabe eta herraturic direnac, eta eror etcitaien cien fermotarçunetic,

¹⁸ bena handi çitaie Jesus-Christ goure Jaun salbaçaliaren gracion eta eçagutcian. Hari içan bedi gloria, orai, eta eternitate orotan! Amen!

II 3,1 sendimentu] A *sendimendimentu*. **I 3,3** gagnet] A *gaignetic* cf. *khurutchén gagna* I 2,24 *gagnécoua* I 2,13 *lurren gagnen* I 1,17 *justouen gagnen* I 3,12 & *houraren gagnen* I 3,20. **II 3,4** noun da] A *nounda*. || *hitzemana*] A B *bitzimana*. **II 3,6** heurez] A *hourrez*. **II 3,7** eta lurra] A B *ela lurra*. **II 3,8** ignora hau] A *ignora hau*, *ceren B ignora*; cf. *Lç hunez etzaretela ignorant* : TB *ez çaçuela ignora hau* : Dv *etzarete behar hau jakin gabe* : Ost *vous n'ignorez pas une chose* : Sacy *il y a une chose que vous ne devez pas ignorer* : Mart *n'ignorez pas ceci*. **II 3,10** Bena] A *Eta*; cf. *Lç Baina* : TB Dv *Bada* : Ost *Mais* : Sacy Mart *Or*. || *ouhougna*] A *ouhouigna*. **II 3,11** horic oro] A B *horic oroc*; cf. *Lç gauça hauc guciac* : TB *Gauça horiec guciac* : Dv *Horiek guziak*. || içan behar ducie] B *içan behar ez ducie*; cf. *Lç behar duçue içan* : TB *içan behar duçue* : Dv *nolakoak etzarete izan behar* : Ost *quels ne devez vous pas être* : Sacy *quels devez-vous être* : Mart *quels ne devez-vous pas être* : LSG *quelles ne doivent pas être*. || cien obren jincotiartarçunaz] A *cien obra jincotiartarçunaz* : B *obra jincotiartarçunaz*; cf. *Lç conuersione saindutan eta pietatezco obratan* : TB *çuen biciaren saindutassunaz, eta zuen eguintcen Jaincotiartassunaz* : Dv *zuen bizitze saindu eta eginkari jaincotiarretan* : Ost *par une sainte conduite et par des oeuvres de piété* : Sacy *la sainteté de votre vie et la piété de vos actions* : Mart *par une sainte conduite, et par des oeuvres de piété* : LSG *la sainteté de votre conduite et votre piété*. **II 3,12** cien desirez] B *cien desiratz*; cf. TB *çuen*

¹¹ *içan behar ducie*: 1887ko edizioan *içan behar ez ducie*, seguruenik frantsesaren *ne espletiboaren* kalkoa — Sacyrenean izan ezik, frantses bertsio guztietan ageri da—; euskarazkoetan, aldiz, soilik Duvoisinek du *ez espletiboa*; ikus II 3,11ko ohar paleografikoa.

¹² *jintçapena*: OEHk ez du *jintzapen* bildu, baina bai *etortzapen* «venida, llegada» (s.v. ETHORPEN); hitz hori 1828ko TB itzulpen protestantean baizik ez du lekukotzen. Gisa guztiz, Urrütik TBko *ethortçapena* → *jintzapena* egokitu zuen, erran bahi baita, zubereratu. Ikus, halaber, *aguertçapenian* I 4,13 eta bertako oharra.

¹⁵ *izkibatu*: OEHk (s.v. IZKIRIATU) Zuberoako beste pare bat testutan bildu du aldaera hau: Etchahun 276 eta Casenave-Harigileren *Santa Grazi* 42.

¹⁶ *mintça beita*: horrelaxe bi edizioetan. Edizio gile honek dakiela, *mintza izan* ez da Zuberoan lekukotu; baliteke, beharbada, huts izatea (← *mintço beita*).

¹⁷ *dejadanic*: ikus I 1,20 eta bertako oharra.

¹⁸ Frantses bertsioen artean, Sacyk eta Martinek dituzte bertsetaren akabantzako harridura ikurrak; euskarazkoetan, TBrekin Ürrütik baizik ez.

deseoez : Sacy Mart *par vos désirs*. **II 3,13** dutugu] A B *ditugu*. **II 3,15** izkibatu] B *iskibatu*. **II 3,16** eztirenec] B *extirenec*. || beitutie] A B *beitucie*; cf. Lç *dituztenic* : TB *dituztenac* : Dv *dituztenak* : Ost Sacy Mart LSG *tordent*. || buhurtcen] A *buhutcen*. **II 3,17** ene] B *enne*. || cien] A *ciren*.